

Herririk Herri |7|

Karmelo Etxenagusia omenduko dute lurretan, zapatuan, Euskaltzale Egunean

Ekonomia |10|

Lan-hitzarmena adostu ezinda dabilta Inyectametaletako negoziazioetan



Berbaz |9|

"Ikasle ohiak gustura bueltatzen dira Ibaizabal Ikastolara bisita egitera"

Osasun Zentroa handitzea, diru-laguntzen menpe

> Traña-Matienako Osasun Zentroa zabaltzeko ez daukala dirurik dio Osakidetzak

> Abadiñoako alkateak azaldu duenez, Jaurlaritzan diru-laguntza eskatu dute

2



Mallabia eta Izurtzarako proposamenak atzera bota dituzte Batzar Nagusiek

Durangaldea • Talde Mistoak Mallabirako eta Izurtzarako Azpiegitura, Garraio eta Hirigintza Batzordean aurkeztutako legez besteko bi proposamenak ez zituzten onartu. Mallabian Trabakuko pasabidea eraikitzea proposatu dute. Izurtzan, berriz, biribilgunea eraikitzeko datak jartzea, N-623 errepidea herrigunetik ateratzeko proiektua bultzatzea eta ibilgailuen abiadura moteltzeko neurri hartzea eskatu dute. Bi herrietako udalek, hala ere, aldarrikapen hauei eusten jarraituko dutela azaldu dute.

4



Argazki Press

• Durango

Tabira auzorako proposamena aurkeztu du ezker abertzaleak **3**

• Otxandio

Gaztetxo eta helduendako ipuin kontaketa plazan **6**

• Mallabia

Jasokundeko abesbatza 'Oh Happy Day'-ko finalean **6**

• Mañaria

Herriko lapurretez ohartarazi du Udalak Ertzaintza **5**

IES JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoak (D eredua):
Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak
Zientziak eta teknologia
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Kalitateko Hezkuntza
Orientazio pertsonalizatua
Heziketa euskalduna
Irteera eta ekintzak
Teknologia berriak
Ingurumen naturala
Talde txikiak

Olaburu, 3 48215 Iurreta Tel.: 94 681 04 61 e-maila: 015090aa@hezkuntza.net www.oroibogoitia.net

HERRIRIK HERRI >

ABADIÑO

Diru-laguntza eskatu diote Jaurlaritzari Matienako Osasun Zentroa handitzeko

Proiektua arriskuan dagoela esanez, oharra kaleratu du EAJ-k asteon; gezurtatu egin du Gobernuak

Atzo eguerdian komunikabideak deitu zituen Jose Luis Navarro alkateak, Traña-Matienako Osasun Zentroa "zabaltzeko proiektuak aurrera darrailela" eta gaia Osakidetzagaz lantzen jarraitzen dutela esateko. Matienako anbulategia handitzea 2010 urte honetan egitea Osakidetzaren lehentasunen artean ez egoteko arriskuaz jabetuta, Osasun Zentroak zabaltzeko Eusko Jaurlaritzak aukeran ipini duen diru-laguntza eskatu duela Udalak azaldu du alkateak. "Normalena Eusko Jaurlaritzak lanak burutzeko behar dugun 52.000 euroko aurrekontua bere osotasunean finantzatzea litzateke", dio Navarrok.

Osasun Zentroaren aldamean dagoen Jubilatuen Egoitzaren erdia hartuko duela Osasun Zentroak dio, eta proiektuaren planoak eskuan hartuta azpimarratu du "benetan larria" delagaur

Jaurlaritzaren diru-laguntza lortu gura dute Matienako Osasun Zentroa handitzeko

egungo zentroan dagoen leku falta". Espazio berria kontsulta pasatzeko eta gaixoen harrerarako gune berriak egingo dituzte. Jeltzaleei "hiritarrak informazio faltsuekin nahastea" egotzi die alkateak.



Osasun Zentroan mediku bat gehiagok dihardu lanean. Judit Fernandez

Oposizioa

Jeltzaleek eguaztenean komunikabideetara bidalitako prentsa oharra ipini zuen osasun etxearen obren finantziarioaren gaia mahai gainean.

EAJk kritikatzan duenez, "350.000 euroko kostua izan duen

Osasun Zentroa zabaldu ahal izateko asmoak eragin du Jubilatuen Egoitza lekuz aldatzea". Batzordean Osakidetzak ez duela dirurik inbertituko ezagutzearan "engainatuta" sentitu direla diote.

Araitx Basauri zinegotziak galdetu du Osakidetzarendako "ezin-

bestekoa" bazen gaia, orain zelaz ez dagoen "lehentasunen" artean. Alkatea gai honegaz "itsututa" egon dela eta ematen zuena baino "zerbitzu gutxiago" ipiniko dituztela dio zinegotziak. Beste aukera batzuk ez baloratu izana kritikatu du Basaurik. ■ J.G./I.E.

Zergen ordenantzaren gaineko EHUren azterketa

Zergen bilketa arautzen duen ordenantzak emakume taldeei kalte eragiten ote dien aztertuko dute Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle bik. Ekimena bultzatu duen Berdintasun Arloko udal zinegotziaren berbetan, "emaku-

Genero politika gaietan adituak diren Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañagak burutuko dute azterketa

Matiena Durangalde osoko dantzari txikienen bilgune

300 ume inguru batu ziren, joan zen domekan, Traña-Matiena izan zen Umeen Dantzari Egunean



Lagunen emanaldiak adi-adi jarraitu zituzten umeek.

meak eta gizonak ez daude berdintasun-egoeran oraindik, zoritxarrez: alargunak, ezkondu bako amak eta beste emakume talde batzuk egoera ahulean daude gizartean, eta litekeena da zerga-ordenantzak kalte egitea euren euren egoera ez zelako aintzat hartu". Genero politika gaietan adituak diren Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañaga irakasleek burutuko dute azterketa. ■ I.E.

Auzoko Iluntze dantza taldeak antolatuta Durangaldeko ume dantzarien elkargune eta oholtza izan zen, joan zen domekan, Traña-Matiena. Eskualdeko herrietako 300 neska-mutil dantzari batu ziren Umeen Dantzari Egunean 2010eko edizioan.

Durangaldeko bederatzidantza taldeetako dantzarien emanaldiak izan ziren

Eskualdeko bederatzidantza taldeetan euskal dantzak ikasten diharduten umeek astero-astero euren herrietan ikasten dutena guraso zein lagunei erakusteko aukera izan zuten bertan. Zornotzako Udabarri, Durangoko Tronperri eta Txoritxu-Alai, Berrizko Iremiñe, Elorrioko Betsaide, Atxondoko Andasto, Ermuko Txindurri, eta Abadiñoeko Talde Batuak eta aurtengo hitzordua antolatu duen Iluntze taldeetako dantzariak batu ziren domekan. ■ I.E.

BERRIZ

Orlan Isoird Berrizko EAJren alkategai

Orlan Isoird ipini du EAJk datoren udal hauteskundeetako Berrizko zerrendaburu, gaur egungo alkate Jabier Azpitarte beharrean. Jose Miguel Apraiz Berrizko Juntako presidentek azaldu duenez, joan zen apirilaren 15ean egindako batzarrean "gehiengoak" babestu zuen Orlan Isoirden hautagaitza, "batzarre heldu zen hautagaitza bakarra". Durangaldeko gainerako herri gehienetan, berriz, aho batez aukeratu dira herrian herriko hautagaitzak.

Orlan Isoird gaur egungo alkateordea da, eta Gobernazio eta Kontuen Komisioko presidentea. Joan zen legintzaldian Kultura arloko zinegotzi izan zen. ■ G.A.



Ur emari gehiago herrian auzoak kaltetu barik

Berrizko Udalak auzoetako ur hornidura eta herrirako behar denerako ur emari handiago bermatuko duen lanak hasiko ditu apirilaren amaieran. Murgoitiko depositutik Zelaieta baserriraino urarentzat sekzio handiko hodia sartuko dute, orain dagoen sekzio txiki hodiaren paralelo; kilometro bateko distantzia da bide ertzetik zein landatik doana. Diametro txiki hodia San Juan auzoa urez hornitzeko erabiliko dute, eta diametro handiko hodi berria herria doan urarentzako bidea izango da. Izan ere, Zelaieta baserritik herria doan hodia diametro handikoa da, lan hauekin bide osoan egongo da diametro handiko ur-hodia.


Alkateak azaldu duenez, "lanak apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran hasi eta hile eta erdian amaituko dira". Gainera lanak bi onura dituela aipatu du; "San Juan auzoak bere ur-hodia izango du, eta herrian ur emari handiagoa behar bada ziurtatuta egongo da auzoei kalterik eragin gabe". Lanak 25.000 euroko kostua izango du materialetan; langileak udal kontratazioak izango dira. ■ G.A.



DURANGO

Tabiran gune berdea eta Kiroleneren eraikin berria egokitzea proposatu dute

Ezker abertzalearen proposamenak txintxaun parkea ere jasotzen du



Fundifasetik Tabirako futbol zelaira doan lur-zatian kokatu dute proposamena.

Durango maite dugulako ekimenagaz bat eginda, Durangoko ezker abertzaleak Tabira auzoak etorkizunean izan behar lukeen garapen ereduaren gaineko hausnarketa egin du. Gaur egun Fundifesek hartzen duen lur-zatian eta handik Tabirako futbol zelairaino doan zatian gune berdea, haurrentzako txintxaunak eta Kirolene kirol irakaskuntzen eskolaren eraikin berria aurreikusi dituzte.

Kirolene kirol irakaskuntzen eskola hara eramatea proposatu dute. EAEn dagoen horrelako eskola bakarra da eta Kiroleneren eragina eta entzutea nazioartean zabaltzen da; Durangok "ezin du erreferentzialtasun hori galtzea arriskuan ipini". Dagoeneko badauden azpiegiturak ere baliatu daitezkeenez, ez ei luke "hainbesteko inbertsiorik eskatuko", eta "gainera, ikasle gehiago hartuta komertzioei mesede egongo lioke".

Durangon gune berdeko parkeen beharrezko dagoela esan zuten. Parkearen ezaugarri nagusietakoa erabilgarritasuna litzateke: "Ez dugu postal baterako argazkia izan dadin gura", azaldu zuen Oier Perez zinegotziak.

Txintxaun estaliak
Txintxaunen arloan ere gabezia ei dago Durangon. Estalitako gunea izango litzateke, urteko sasoi guztietan erabilera bermatuz. ■ J.D.

"Maratoi gozoa" antolatuko dute Haitiren alde

Zubiguneak Durangoko elkarteentailer parte-hartzaileak "elkartasunezko mokadutxoak" eskainiko ditu bihar, apirilaren 24an, 18:00etan Ezkurdiko plazan. Antolatzailerak ekimenari *Haitirentzako 100 tarta* izena jarri diote. Herriko elkartetako kideek pastelak prestatuko dituzte, eta zati bakoitza euro baten truke salduko dute. Batutako diru guztia Haiti berrekitzeko proiektuetara bideratzea dute helburu. Herritarrei zapatuko ekitaldian parte hartzeko deia egin diete.

Durangok Haitii gogoan ekimenak herrialde hartara laguntza bidaltzeko beste hainbat ekintza antolatu ditu Durangon. Durangoko Udala, Zabaltzen-Sartu, Andereak, Appedur, Asociación Ghana, Bateginez, Caritas, Geu Be, Gure San Fausto Berria, Herria auzo elkarte, Irriklown, Jesuiten Etxea, M'lomp eta +Dendak dira antolatzaileak. ■ J.G.

Zubiguneak Durangoko elkarteentailer parte-hartzaileak antolatu du

'Euskal Harley' herrira zabaltzen saiatuko dira aurtengo ekitaldian

Denda eta komertzio askok eskatu ei du bigarren aldi hau ez mugatzeko Landako Erakustazokara

Iaz hasitako bideari jarraituz, aurtengo Euskal Harley jaiaren bigarren aldi antolatzen dabilta +Dendak eta Más Curvas elkarteek elkarlanean. Uztailaren 2an, 3an eta 4an izango da.

Iazko lehenengo aldia arrakastatsua izan zen, Iñigo Carreto +Dendakeko kidearen esanetan, baina "eguraldi txarrak gura baino gehiago baldintzatu zuen ekimena". Hala ere, iaz 300 bat harley batu ziren, eta aurtengo hainbatek Euskal Harleyrako interesa erakutsi dute: "Madril, Katalunia, Leon eta beste hainbat tokitatik deitu digute Euskal Harleyaren inguruan galdetuz".

Harleyari eta motorzaleei zuzendutako aurtengo aldiari jai giroa herrira gehiago zabaltzen ahaleginduko direla adierazi dute: "Iaz Landako Erakustazokara mugatu ginen gehienbat. Aurtengo Alde Zaharrera eta Madalena ingurura zabaltzen saiatuko gara.

Izan ere, denda eta komertzio askok eskatu digute jaiaren eremu horietara ere eramateko".

Natxo Martínez Udaleko ordezkariaren esanetan, "aurrekordio bat itxita daukagu +Dendakeguz; 12.000 euro jasoko litzateke eta azpiegiturretan ahal dugun neurrian lagunduko genieke".

+Dendak eta Más Curvas elkarteek Udalaren eta Turismo Bulegoaren laguntza jaso dute aurtengo

+Dendak-ekiazko aldia posible egin zutenei oroigarri bana eman zien joan zen asteko prentsaurrekoan: Eusko Label, Deia, Metalbide, Hirumet, Neumáticos Etxebarria, Cafés Baqué, Txakoli Arrizola eta Electricidad Biok, Mas Curvas eta Durangoko Udalak jaso zituzten oroigarriak. ■ J.D.

Datorren martitzenean inauguratuko dituzte igerileku berriak

David Meca igerilariak eta hainbat igeriketa klubek parte hartuko dute inaugurazio ekitaldian

Amaitu dituzte Landakoko igerilekuetako lanak eta apirilaren 27an, 19:00etan, inaugurazioa ekitaldia egingo dute; besteak beste, David Meca igerilari etorriko da. Maiatzaren 3tik aurrera zabalik egongo da herritarrentzako.

Durangoko Gobernu Taldeak azaldu duenez, hilaren 27ko ekitaldian gonbidatu ugari parte

hartuko du. Horietan ospetsuena David Meca igerilari da. Durango eta Abadiñoko igeriketa klubak, Mugarra triatlói taldea eta beste hainbat talde ere joango dira. Bertan izango da Javier Berasategi ere, 1967an Tabirako igerilekuak inauguratu zituen.

Helburu berriak dituzte kudeatzaileek, "orain arte heldu ez garen jendearengana ailegatu gura dugu"; langabetuak eta 23 urtez azpikoak aipatu dituzte, adibide legez.

Hiru igerileku egin dituzte: bi nagusientzako dira bat umeentzako, erlaxatzeko ere badena. Bestalde, kirol-guneak makinekin hornituriko gimnasioa eta aerobica, spinning-a... praktikatzeko aukera eskaintzen du. ■ J.D.

Durango eta Abadiñoko klubak eta Mugarra triatlói taldea bertan izango dira

1967an Tabirakoak inauguratu zituen Javier Berasategi ere joango da ekitaldira



Anbulatorio ondoan daude igerileku berriak.

IBAIZABAL IKASTOLAKO

10. urteurrena

MAIATZAK 1:

12:30 IBAIZABALen elkartu eta trikipotea

14:30 BAZKARIA Kurutzlagako frontoian

Bazkalostean bertsolariak, bideo emanaldia eta erromeria OXABI taldearekin.

17:00 ZAPARRADA batukada taldea

Bazkarirako tiketak salgai:
Durango: Ibaizabal ikastola, Plateruena kafe antzokia • Zornotza: Andra Mari ikastola, Urtza taberna • Elorrio: Txintxirri ikastola, Parra taberna • Galdakao: Eguzkibegi ikastola, Goizargi taberna

Tiketak hartzeko azken eguna:
Apirilaren 27a
20 euro



DURANGALDEA

Mallabia eta Izurtzako proposamenak, atzera Batzar Nagusietan

Ezker abertzaleak Mallabirako eta Izurtzarako aurkeztutako proposamenek ez dute aurrera irten

Trabakuko errepideko pasagunea egiteari eta Izurtzan saihebidia eta biribilgunea eraikitzeari lehentasuna ematea ez dute onartu Bizkaiko Batzar Nagusiek. Azpiegitura, Garraio eta Hirigintzako Batzordean Talde Mistoak egindako araz besteko bi proposamenak bertan behera gelditu dira, EAJ, PP eta PSE-EEren kontrako botoekin. Talde Misto alde agertu zen.

Mallabiko auzokideek 644 herritarren sinadurak bildu dituzte

Mallabiko alkate Aitor Loiolak azaldu duenez, Osmo, Gereia eta Zengotitako auzokideek egotzari irtenbide bat bilatzeko eskatzen duen sinadura bilketan 644 sinadura jaso dituzte. Oinezkoek Trabakuan lau errei zeharkatu behar dituzte bidea gurutzatzeko. "Herri txiki batean kopuru handia da, eta oraindiko elkarriketa baterako ere ez dituzte deitu". Kotxeendako N-633 errepidea konponzen dabilenez "oinezkoendako eta animaliendako pasabidea eraikitzeo unea oraintxe" dela dio alkateak. Aldundiak herrian arriskuak diren puntuak konpon-

tzen dihardu, bidegurutzak mol-datuz. Sarrerak eraikitzen dabilza Trabakuan, Goitan eta Osman. Pasabidea eraikitzeo data jartzeari garrantzitsua deritzo, eta eztabaida guztia "autoen arazoa konpontzera mugatzea" kritikatu du.

Izurtzarako proposamenak saihebidia eta biribilgunea eraikitzeo planteatzen zituen. herri-gunetik pasatzen den N-623 errepideko trafikoa moteltzeko neurriak ere eskatzen zituzten. "Biribilguneo proiektuagaz hainbat aldaketa egitea eskatu digute,

Ballarin: "LZPan saihebidia ibilbide alternatibo moduan aurreikusi dute"

eta lan horretan urteak daramatzagu", salatu du Iker Ballarin alkate-ordeak. Saihebidia LZPan ibilbide alternatibo moduan aurreikusi dutela gogoratu du. Herriarendako trafikoa moteltzeko neurriak hartzea garrantzitsua dela azaldu du Ballarinek. ■ J.G.



Ibilgailuak Izurtzan zehar astiroago joatea gura dute.

ELORRIO

Parke bati Agirre izena jartzea eztabaidagai

Herriko parke bati Jose Antonio Agirrerren izena ipintzeko EAJren mozioak ez zuen aurrera irten

Azken udalbatzarrean EAJk Nizeto Urkizu kalean dagoen parkeari Jose Antonio Agirre Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakaria izandakoaren izena ipintzeko eskatu zuen, mozio batean. Mozioak ez zuen aurrera irten, ezker abertzalearen aurkako botoekin.

Ana Otadui EAJko zinegotziak aurten Agirre hil zeneko 50. urterrena dela gogoratu eta "mereziketako omenaldia egiteko aukera

eta une egokia" dela esan zuen. PSE-EEko zinegotzi Mari Carmen Muñozek mozioaren alde egin zuen, Agirre "demokrata bateratzailea" izan zela gogoratuz.

Niko Moreno alkateak bat egin zuen gainerako zinegotzien iritziekin, eta Agirrerren "joera ezberdinak bateratzeko ahalmena" azpimarratu zuen, bere izena zein garrantzia aldarrikatuz. Bere eta Gobernu Taldearen ezezko

botoa prozesua aurrera eramateko moduan kokatu zuen. Izan ere, udalbatzar berean Elorrioko kaleen izendegi berria onartu zuten, eta EAJren proposamena dagokion batzordera eramateko eta han lasaitasunez eta irizpide guztiak kontuan hartuta hausnartzeko eskatu zuen.

"Borondate falta"

Otadui horiek "arrazoi ahulak" direla erantzun zion, eta "borondate falta" ikusi zuen ezker abertzalearen jarreraren. Era berean, EHAko zinegotzi Jose Antonio Alkorta udalbatzarrera ez etorri izana salatu zuen. Azaldu zuenez "batzordean mozioaren alde" agertu zen "baina udalbatzarrera etorri ezik, horrek ez du balio". ■ J.D.

ATXONDO

Pisu tutelatuan bizitzea leporatu diote alkateari

Atxondoko EAJk David Cobos alkatea Udalak tutelatzen duen pisu baten bizi dela salatu du asteon. Premia bereziak dauzkaten atxondarrentzat da pisu hori, eta orain arte bertan emakume bat bizi izan da. EAJk zabaldu duen idatzi baten arabera, "martxoaren hasieran pisua hutsik geratu zen, eta geroztik alkatea bizi da han". Jeltzaleek pisu tutelatu hori zelan kudeatu Ongizate Batzordean lantzeko eskatu dute.

David Cobos alkateak azaldu du EAJk zabalduetako idatzian "zentsuzko zer edo zer idatzita egongo balitz" erantzungo lukeela. Akusazio pertsonal hori ezetatatu eta horren aurrean ezer esatekorik ez daukala adierazi du; "esatekotan nire abokatuak esango du". Gaineratu duenez, "delitua izan daiteke horrelako delitu bat leporatzea". ■ A.U.

EAJ: "Martxoaren hasieratik hutsik dago pisua, eta alkatea han bizi da"

Cobos: "Ez dauka zentsurik. Zer edo zer esan behar bada, nire abokatuak esango du"

IZURTZA

Auzobideetako zirkulazioa geldotzeko

Hasi ditu Udalak herriko auzobideetatik igarotzen den trafikoa abiadura moteltzeko helburua duten sistema berriak ipintzeko lanak. Azkeneko egunetan ekin diete, besteak beste, oinezkoendako bideak margoztu eta seinaleztapen berriak ipintzeko beharrei. Tokiko Inbertsioetarako Espainiako Gobernuaren dirulaguntzagaz finantzatu dituzte beharrok, eta 22.000 euroko aurrekontuagaz dihardute.

Herriko auzobideetako trafikoa moteltzeko neurriak ezartzea helburu duten lanak egiten dihardute

Aldaketa puntuala

Gaur eguerdirako Udaletxean deitu izan duten ohiko udalbatzarrean, bestalde, joan zen urte amaieran onartu zuten 2010eko aurrekontuaren gaineko zenbait aldaketa puntualak egitea proposatu du Udal Gobernuak.

Azken hilabeteetan herrian burutu dituzten hainbat obratan, hasierako proiektuetan aurreikusi barik zeuden lanak barneratu dituztela azaldu dute; zenbait obraren hasierako egitasmoetan jasotzen ez ziren hobekuntzak burutu dituztela. ■ I.E.

Aho batez onartu zituzten Auzo Kontseilua sortzeko estatutuak



Udalbatzarrean aho batez onartu zituzten Auzo Kontseilua eratzea ahalbidetu duten estatutuak. Udalbatzarrean izan ziren auzoetako ordezkari legez estatutuak sortzeko batzarretan izan diren ordezkariak ere.

Alderdiek Auzo Kontseiluaren balioa azpimarratu zuten. Auzoetako ordezkariak ere gustura ziren. Esaterako, Leizeko ordezkari legez joandako Marcos Arroita "auzoen garapenerako tresna ona" izango dela azpimarratu zuen: "Auzo bideak, seinaleztapena... arlo askotan lan egin daiteke Auzo Kontseiluan".

gremioen koordinazioa

urutiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

katerin ardoak
iñaki uribe

saltzan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltzan.com

Hemen agertu gura badozu
deitu!

94 621 79 02



ZALDIBAR

Ekitaldi ugari antolatu dute Zaldibarren Castet Egunaren inguruan

1937ko apirileko egunak gogoan Zaldibarren; ekitaldien artean, Santamañezarrera igoera

Castet eguna dela-eta Zaldibarko Castet, Durango 1936 eta Berriz Gogoratzen elkarteetako ordezkariak hainbat ekitaldi antolatu dute astebururako. Hamazortzigarren Castet Egunaren izango da aurtengoa, eta egitarau zabala antolatu dute. Larunbat goizean ikur faxisten ezabaketa egingo dute. Biharamunean, 10:00etan Santamañezarrera igoera udaletxe aurretik irtenda. Gailurrean ekitaldi txiki bat, eta 12:30ean San Martin plazatik Cas-

tet elkartearaino kalejira. Ondoren, Castet elkartearen egoitza aurrean ekitaldia eta luntxa. Asteburu osoan 1937ko apirileko egun haiek gogoratzeko erakusketa izango da kalean; Santamañezarren izandako borrokan Iñaki Castet batailoiko komandantea eta 40 gudari eta miliziano hil ziren. ■ G.A.

1993an antolatu zuten lehen Castet Eguna Zaldibarren, izen bereko elkarreak antolatuta



Zaldibarren apirilaren 24 eta 25ean hainbat ekitaldi daude.

Zaldibarko liburutegi berria gaur zabalduko dute, Liburuaren Egunean

Liburutegi berrian ordenadoreekin ibiltzeko aukera dago, eta horrek "jendea erakarriko du"



Liburutegian hainbat espazio daude, lekua aprobetxatuz.

Zaldibarko Udal Liburutegi berria gaur, Liburuaren Nazioarteko Egunean, zabalduko dute. Lehengo liburutegia halako bi dela aipatu du Jabier Vidal liburuzainak, eta hainbat espazio sortzeko aukera eskaini du, nagusiena eta umeena bereiziz; Txiki-txokoa, umeentzat beste txoko bat, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko txokoa, eta ikasteko eta ordenagailuekin ibiltzekoa. Horrez gainera, liburutegian dauden 12.000 liburuak gaika bereiziz dituzte; guraso esko-

la, mendia, bidaiak, emakumea... topaketa errazteko asmoz. Eta nobedadeak ere leku berezia izango du, jendeak hobeto identifikatzeko. Gainera, "wifia daukagu jendeak bere ordenagailuagaz etortzeko, eta laster ordenadoreak ipiniko ditugu". DVDak eta CDak ere badaude alokagai.

Liburutegian 700 bazkide daude, eta Vidal liburuzainak bazkide kopurua eta erabilera igo egingo dela uste du, ordenagailuak ipintzen dituztenean. ■ G.A.

MAÑARIA

Ertzaintzari gutuna idatzi dio Udalak, lapurrete buruz

Auto barruko irratia edo kotxean utzitako baliozko gauzak hartzeko egin zuten lapurreta, joan zen astean, herriko aparkalekuan zeuden hiru autotan. Azkenaldian herrian lapurreten kopurua hazi egin den irudipena dauka herritar askok, eta joan zen asteko lapurreten ostean, Durangoko Ertzainburuari gutuna bidali diola jakinarazi du Udalak: gertatutakoa lako lapurretak ekiditeko "segurtasuna hobetzeko ahaleginak egin" ditza-tela eskatu diotela poliziarri eman du Udalak jakitera.

"Segurtasuna hobetzeko ahaleginak egin ditzala" eskatu diote Ertzaintzari, Gobernuak azpimarratu duenez

Lapurreten areagotzea erakusten duten datuak azaldu ditu asteon Udal Gobernuak. Besteak beste, azken aste eta hilabeteetan txanpon makineta diruaren bila herriko tabernetan hainbat aldiz sartu direla, eta herriko baserri batean baliozko tresnak ere eraman zituztela esan dute. Auto, taberna eta baserrietan ez ezik, herriko landetan bildotsak edo txaboletatik tresnak lapurtzera ere sartu direla nabarmendu du Udal Gobernuak. ■ I.E.



Apirilak 30 ostirala
22:00etan. Sarrera: 8-10 euro

AUDIENCIA



Aurresalmenta: <http://plateruenasarrerak.aking.eu>

MALLABIA



Mallabiko taldea burubelbarri dabil zapatuko emanaldia prestatzen.

'Oh Happy Day'-ko finalean lehiatuko da Mallabia zapatuan

Astigarraga eta Eibar izango dituzte mallabitarrek aurkari ETB1eko abesbatzen lehiaketan

Jasokunde abesbatza *Oh Happy Day* saioko finalera heldu da. Mallabitar guztien artean ikusmin handia sortu du ETB1eko abesbatzen lehiaketak. Mallabiko taldeak, urtarilean telebistako platoa lehenengoz zapalduzuenen, ez zuten itzaroten finaleko norgehiagokara heltzea. Astigarraga eta Eibar izango dituzte aurrez aurre zuzenean, bihargauko 22:00etan emitituko den finalean. Iratxe Uribelarrea abesbatzako zuzendariak azaldu duenez, adin askotako kideak daude abes-

batzan eta esperientzia horrek hartu-ema estutzeko balio izan die. Mallabian, baina, jaiari trikipoteoagaz 20:00etan hasiera emango diote. Herri-afarian 21:00etan elkartuko dira. Finala zuzenean ikusteko pantaila erraldoia jarriko dute 22:00etan frontoian. Saioan zuzeneko konexioak egingo dituzte jaiko giroa platonik ezagutzeko. Trikileku taldeak 00:00etatik 02:00etara tabernaz taberna ibilbidea girotuko du, eta abesbatzako kideei harrera egingo diete herrira heltzean. ■ J.G.

GARAI

Aiartzako auzobideko lanak hastekotan dira

Joan zen hilean adjudikatu zituzten Aiazako auzobidea konponitzeko lanak. Momoitio auzoan kokatuta dago bide hori, eta dirulaguntza bitartez aterako dute egitasmoa aurrera.

Hain zuzen ere, Espainiako Gobernuak Tokiko Inbertsioetarako Estatu Fondotik ematen dituen dirulaguntza da bidearen konponketa ahalbidetuko duena. Guztira, 34.702 euro jaso ditu Udalak Madriletik.

Egitasmo horretako lanak Urre enpresari egokitu zaizkio, adjudikazioz. Udaleko ordezkariak azaldu digutenez, apiril amaierarako aurreikusten dute lanak hasita egotea. 15 eguneko epean auzobideak itxura berria izatea itzaroten dute.

Joan zen urtean ere jaso zuten Garaiko Udalak Tokiko Inbertsioetarako Estatu Fondoaren dirua; San Migel kalea urbanizatu zuten orduan, espaloia eraikiz eta aparkalekuak atonduz. ■ M.O.

OTXANDIO

Motxotegiko eoliko eta goi tentsioko linearen proiektuak salatu zituzten

Batiak Otxandio iraunkorrago egitea helburu duen plangintza aurkeztu zuen prentsaurrekoan

Batia plataformak, *Otxandio maite dugulako* ekimenaren barruan, "garapen eredu autodestruktiboari" aurre egin eta Otxandio "benetako iraunkortasunerantz" bideratzeko alternatibak aurkeztu zituen joan zen zapatuan.

Batiak Otxandio maite dugulako ekimenaren barruan eman zuten prentsaurrekoa

Mundua gidatzen duen "neoliberalismo basatia" salatuz, Otxandiori eragiten dioten proiektu bi salatu zituzten: Motxotegin Iberdrolak eraiki nahi dauen parke eolika eta tentsio altuko linea: "Gure ingurunean inpaktu ekologiko larria eragingo dute", esan zuten Aritz Otxandiano alkateak.

Lehenengoari dagokionez, Motxotegi gaina "erabat txikitu" gura duten 12 aerogeneradore ipiniko dituzte; bigarrenak, "Kerixara eta Anteparaluzetako bizilagunak zuzenean kaltetuko ditu".



Zapatuan eman zuten prentsaurrekoa, Udaletxe parean.

Ondoren, etorkizuneko alternatibak aurkeztu zituzten. Alternatiba horiek subiranotasun energetikoaren bidea lantzen dute eta landa-lurrak antolatzea eta babes- tea ere badute helburu, besteak beste. Asmo horiek Herritarren Kontseiluan eztabaidatuko dituzte. Han herritarren iritzia jaso- ko dituzte eta horiek praktikara eramateko konpromisoa ere har- tu dute. ■ J.D.

Parke eolikoak Motxotegi gaina "gutziz txikituko" duela salatu zuten

Gaztetxo zein helduentzako ipuin kontalari saioa gaur

Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta, ekintza bi antolatu ditu Kultura Batzordeak. Gaur, 18:30ean, gaztetxoei zein helduei zuzendutako ipuin kontalari saioa eskainiko du Doro Zurbaranek plazan. Saio berezia da, antzerkia eta kantua ere uztartzen dituelako bere saioan. Bestalde, irakurzaletasuna sustatzeko helburuz, laster 300 telazko poltsa banatuko dituzte Liburutegian. Poltsak eskuragarri jarri ondoren, Liburutegira doanari poltsa bat emango diote, liburuak eramateko aproposa. Jaurlaritzako dirulaguntza baliatuko dute ekimen hori egiteko.

Bestalde, apirilaren 30ean 22:00etan eta maiatzaren 1ean 17:00etan, *Mugaldekoak* filma euskaraz ikusteko aukera egongo da Kultur Etxean. Otxandio Euskadiko Filmategiak sustatutako zirkuituaren barruan sartu zen, eta horren bitartez ekarri- ko dute filma Kultur Etxera. ■ J.D.

Ezkilalore
Fruituak eta barazkiak

Inaugurazioa
Apirilaren 26an, astelehenean, 17:00etan

ORDUTEGIA
9:00-13:30 / 17:00-20:00
larunbatetan 9:00-13:00

Arlozabal, 2
48220 Abadiño (Muntsaratz)
Tel.: 626 15 68 17

Durangaldeko Baserritarren Elkarteak

DIBA
KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



DIURRETA

Karmelo Etxenagusari omen egiteko Euskaltzale Eguna

Bihar, 12:00etan, Ibarretxe kultur etxean egingo dute ekitaldi nagusia


Gerediaga elkarrekin eta Udalak, Euskaltzaindiaren, Labayru ikastegiaren, Bilboko Gotzaintzaren eta Iurretako kofradien laguntzagaz antolatu dute bihar, apirilaren 24an, Karmelo Etxenagusari oroimendia egiteko Euskaltzale Eguna.

Bihar, eguerdiko 12:00etan, Ibarretxe kultur etxean burutuko dute Euskaltzale Egunaren ekitaldi nagusia, eta Euskaltzaindiaren ordezkartzan Adolfo Arejitak, Labayruko Igone Etxebarriak eta Angel Mari Unzuetak hartuko dute ekitaldian berba. Bilboko gotzain laguntzaile izan zen Etxenagusaren lanen ingurukoak izango dira hitzaldiak, eta Iurretako dantzariak eta abesbatzak ere saioak eskainiko dituzte ekitaldian.

"Durangaldeko emakume eta gizonek euskararen alde egindako lanak ezagutzera eman gura ditu" Euskaltzale Egunagaz, Gerediaga elkarrekin; "isildutakoak eta askotan ezezagunak diren lanak ezagutzera" emanez.

Adolfo Arejitak, Igone Etxebarriak eta Anjel Mari Unzuetak hartuko dute biharko ekitaldian hitza

Karmelo Etxenagusia
Lan ugari eta errekonozimendu asko jasotakoa izan zen Karmelo Etxenagusia. Iurretan jaio zen, 1932ko apirilaren 24an, Ertzilbengoa baserrian, eta Bilbon hil zen



2008ko azaroaren 6an. Euskaltzaindiako kide izan zen, euskara batuaren oinarriak erabaki ziren batzarrean partu hartu zuen besteak beste, 1968an Arantzazun. Liburu eta artikulua asko idatzi zuen: tartean, euskal literatura-ren bost antologia. ■ I.E.

Parke bat atonduko dute txapa-lantegia eraitsita

Astebetean edo hamar-hamabost egunean eraikina bota egingo dutela azaldu du alkateak



Eraikina botatzeko beharrezko baimenak ditu Udalak.

Eraikina eraisteko egin beharreko tramiteak burutzen dihardutela eta txapistegi zaharra zen eraikina datozen aste bat edo bi bota egingo dutela azaldu digu Iñaki Totorikaguena alkateak asteon. Eraikina eraitsi ahal izateko baimenak lortuak dituzte dagoeneko

Txapisteria zaharrak hartzen duen lurzorua birgaitzeko Eusko Jaurlaritzaren baimena jaso behar du Udalak

Udalean, baina eremu hori birgaitzeko lanak egin ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren sailburuordetzaren baimena behar dutela aurreratu digu alkate jeltzaleak: lurzoru horri beste erabilpen bat eman ahal izateko Eusko Jaurlaritzaren oniritzia behar du Udalak.

Leku horretan parke bat egitea da Udalaren asmoa, datozen aste bat edo bi txapistegi zaharren eraikina bota eta lurzorua birgaitzeko lanak egingo dituzte horren ondoren. ■ I.E.

Oromiñoko San Marko jaiak gaur arratsaldetik

Gaur gaueko mozorro, musika, dantza giro apartagaz hasiko dituzte Oromiño auzoan jaiak: *April Fest* garagardo festagaz abiatuko dituzte jaiak gaur.

Apirilaren 24an, bihar jaso dute Donien Atxa, eta laguntzen dutenentzat makailau errea eskainiko dute ohitura denez.

Bihar, berriz, ume zein nagusientzako ekitaldiak antolatu dituzte: briska txapelketa, umeentzako jolasak, tortilla txapelketa zein erromeria izango dira, txarri harrapeketagaz amaituko duten zapatuan. Domekan ere jarraitu egingo du jai-giroak Oromiñon, San Marko jaiak amaiera beroa emateko. ■ I.E.

Anderebide, kofradiarik kofradia oinez

Ibarretxe kultur etxetik aterako da biharko, apirilaren 24rako, Anderebide emakumeen elkarrekin antolatu duen ibilaldia. Kofradietan zehar egingo dute, 09:00etan kultur etxetik abiatuta ibilaldia. Bestetik, *Zoru pelbikoak sendotzea* ikastaroa eskainiko du Anderebidek, maiatzaren 10etik aurrera, zazpi sesiotan: 616.490.506 telefonoa ipini dute izena emateko. ■ I.E.

DIURANGO

Jesuitak ikastetxea hirugarren RetoAlcoa enpresa lehiaketan

Jesuitak ikastetxeko Goiza taldeak hirugarren saria irabazi du Alcoa Fundazioak sustatzen duen RetoAlcoa enpresa lehiaketako zortzigarren edizioan. Marilen izan zen sari banaketa, eta Oihane Gulín, Oier Ozaeta eta Gorane Gorospek diploma bana jaso zuten. Guztira, hainbat komunitateko 500etik gora ikasle parte hartu dute lehiaketan.

Finalisten artean izan ziren Madrilgo, Alicanteko eta Lugo-ko ikastetxe batzuk ere. Sari banaketaz gainera, bertaratu ziren finalista guztiak enpresa eta kontsultore batzuetako profesionalak eskaintako *Oportunitades de Inserción Social Laboral* izeneko seminarioan ere parte hartu ahal izan zuten.

Andoni Egaña, gurasoen eta seme-alaben hartu-emanez

Azkenaldian zuen alabak krisketa ixten du bainugelara sartzen denean. Krisketa nola zabalarazi eta nola jo aldaba? izenburupean, aita-ama eta seme-alaben arteko komunikazioaz berbaldua eskaini zuen Andoni Egaña bertsolariak. Hainbat guraso, ikasle eta irakasle batu zen Hizkuntz Eskolako Areto nagusian Egañaren hitzaldia entzun eta bertan parte hartzeko.

Ibaizabal Ikastolak antolatu zuen ekitaldia, bere hamar garren urteurrenako ospakizunen baitan. Andoni Egaña bertsolaria izateaz gainera, komunikazioan aditua eta seme-alaba biren aita ere bai.

Lau hitzaldi 'Kontsumoa eta nagusiak' izenburupean

Durangoko Udaleko Adinekoen Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzak elkarlanean, 'Kontsumoa eta nagusiak' programaren beste edizio bat antolatuko dute, apirilaren 26tik 30era (17:00etan), Durangoko Adinekoen Udal Egoitzan. Jon Ariño medikuak, apirilaren 26an, *Elikadura eta nutrizioa* izango ditu berbagai. Igor Marcosek apirilaren 28an *Adinekoen segurtasuna* izango du hizpide. Tailerrak ere antolatuko dituzte. Apirilaren 27an *Elikadura osasunerako baldintza moduan*, eta apirilaren 29an *Arriskuak ezagutu, istripuak ekidin* izango dira bi ikastaroetan landuko dituzten arloak.

DIURRETA

Aralar "bidesari soziala" eskatuz autopistako ordainlekuan



Durangaldeko Aralarrek eta Iratzarrik A-8 autopistaren ordainlekuan protesta ekitaldia egin zuten zapatuan. Ordainlekuaren goiko aldean pankarta bat ezarri zuten, *Erakundeei peaje sozialaren beharra aldarrikatuz* izenpean. Durangaldeko Aralar eta Iratzarriko kideen esanetan, "bada garaia Aldundiak inposatzen duen bidesari politikan aldaketa erradikala aldarrikatzeko". Biltzen duten dirua ez dela "garraio publikoa hobetzeko edo garraio plan jasangarriak diruz laguntzeko bideratzen" salatu zuten. Aralarrek "doako ordainsaria" ez duela aldarrikatzen gogoratu zuten, baina argi dagoela Aldundiak ez duela asmorik "ordainsari sozialik" ezartzeko.

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

BILBAO ASEGURUAK | **CATALANA OCCIDENTE**
Jabier Rueda

IRITZIA >

Gutunak @

GoogleEarth eta Elorrioko elizak

GoogleEarthek, txori batek bezala, gauzak zerutik ikusteko aukera paregabea ematen du. Nork ez du GoogleEarthen bidez bere etxea bilatu, zerutik zer itxura duen ikusteko?

Elorrioko ermita eta elizak zerutik begiratzen baditugu konturatuko gara ez daudela edozein tokitan eraikita. Ondoko irudian ikusi ahal den moduan, Abadinoko Andra Mari ermita, Elorrioko Sortzez Garbia eta Gazetako Andra Mari ermita, lerrokatuta daude. Hirurak Ama Birginaren adokaziopean. Horrez gain, hiru eliza hauen ardatz nagusiak lerro horren gainean daude, Iparraldearekin 110º inguruko angelu bat eginez.

Bestalde, Elorrioko beste ermita bik (Mendrakakoa eta San Josekoak, hain zuzen ere) Elorrioko Sortzez Garbiarekin beste marra bat osatzen dute, lehenengo ardatzarekin 90º eginez eta horrela gurutze bat marraztuz Elorrioko erdian. Esan beharra dago kasu bietan lerrokatzeak badutela metro batzuen errorea. "Gurutze" horren marra luzea 6.5 km ingurukoa da eta errorea 40 metro azpitik dago; hau da, %1a baino txikiagoa da. Eliza hauek eraiki ziren sasoirako, orain lau-bost mende dela, ez dago txarto.....

Hau guztia, baliteke txiripaz izatea eta hasiz gero topatzen, beste ermita batzuk beste marrekin lotuz, edozein irudi geometriko aurkituko genuke. Edo ez. Azken hitza norberak dauka: GoogleEarth dohainik da.....



Gabriel Ibarra - Elorri

Durangaldeko AHT Gelditu Elkarlanaren astebururako deialdia

Abiadura Handiko Trena eraikiz Hego Euskal Herri osoa 400 km-tan zehar urratzeko asmoa dute eta horrek, eragin sozio-ekonomiko itzelak ekartzeaz gain, gure ingurumenean, hau da, Euskal Herriko mendi, ibai, koba, erreka, animalia, landare eta, oro har, gure inguruko ekosistemak osatzen dituzten elementu guztiengan eragin itzulezinak izango ditu. Guztiok jakin badakigu horrelako ezaugarriak dituen azpiegituraren eraikuntzak inguratzen gaituen paisaia erabat aldatuko duela, jada ugariak diren biaduktuek bikoiztu egingo dituela, jada aurkitzen zailak diren isiltasun-parajeak desagerrarazi egingo dituela, tontorrera erdi-bidean hain baliagarri zitzaigun iturria lehortu egingo duela, orain arte industria eta etxebizitzaren eraikuntzatik at mantendu diren bailarak alde batetik bestera zeharkatzearekin gizakion mundu globalizatu eta moderno bilakaraziko dituela...

Horren guztiaren adibide ditugu Arrasate eta Aramaioko udalerrak. Aramaioko bailara, kasu, edertasun aparteko udalerrak.

izaki, AHTaren itzelezko ingurumen eraginaren eta paisaiari emandako kolpe latzaren menpe geratzen ari da. Bertan 1.405 metro luze eta 70 metro altuerako biaduktu erraldoia eraikitzeak obrak eta AHTaren gainerako eraikuntza-lan guztiak, ingurugiro kalitate zalantzaezina duten hainbat ingurune eta landagunetan eragin bortitza izaten ari dira, inguruaren esentzia zeharo aldaturik. Aramaion, gainera, urtarrilaz geroztik, AHTaren lanek eragindako lur-jauzi itzelaren ondorioz, Arrasatera doan errepidea erabat itxita dago Aramaioko bizilagunen eguneroko bizitza erabat eraldatuz. Lur-jauziak ia egunero gertatzen dira horrelako azpiegituren eraikuntza-lanetan, ia egunero erortzen dira "hondakinak" menditik, ia egunero kentzen diogu aurreikusitako gabe "hondarren" bat gure paisaiari... baina Aramaion gertatutakoa bizilagunek eurek aurreikusi eta ohartarazitako lur-jauzia izan zen. Biaduktu luzearen zutabeetako bat mendi-mazela aldapsuan eraikitzeak asmoa zuten, baina eremua ukitzen hasi aurretik ere, azken hilabeteetako kamioi pisutsuen eta inguruko lurren mugimenduek eraso larria egina zioten eta lur-jauziaren aurreko egunetako euriek azken bultzada eman zioten, lur eta harkaitzez osaturiko hamara metro kubiko mendi-hegaletik erauziz. Itzuliko al dute "aurreikusi gabe" erauzi den lur hori guztia bere tokira?

Durangaldean bertan ere, jada AHTaren obren ondorioak jasaten ari gara. Triste da benetan Durangoko igerilekuaren ondoren dagoen panorama eta Abadiñoko Mendiola auzoko obrek gure inguru paregabea nola txikitzen duten ikustea. Baina ez hori bakarrik, obren alboko bizilagunak egunero-egunero pairatzen duten zarata, kutsadura eta kaltea jasangaitza da; adibidez, gauez tunela zultzeko egiten diren leherketek Durango eta Izurtza mugan bizi diren biztanleek ez die lorik egiten uzten, eta, gainera, Izurtzan leherketen ondorioz hainbat baserri zartadurak agertu dira; Udalatz mendiaren zulaketen ondorioz egunero ur pila galtzen da, eta jada Arrasate inguruko baserri batzuek ur arazoak dituzte; Mañaria, Udalatz eta Astxikiko harrobien ekoizpena izugarri hazi da azken urtean, horrek mendiegi egiten dien kalte konpenezina eraginez...

Gizarteari inolako onurarik ekarriko ez dion azpiegitura xahutzaille, antiekologiko eta antisozialaren bultzatzaileek naturari eragiten dizkion kalteak gutxienezkoak direla behin eta berriz errepikatzen badigute ere, guk guztiok badakigu hori guztia gezurra dela. Hori jakinda, mugi gaitezen eta adieraz dezagun behingoz gure aurkakotasuna!

Hori dela-eta, Durangaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak, Alpinotabira mendizale taldea, Ourdaby, Gema espeleologia taldea, Zornotzako mendi taldea, Brinean mendi taldea, Hormagora mendi taldea eta Erdella mendizale taldearekin batera, apirilaren 25ean lurra herrien etorkizuna: aht gelditu! lelopean egingo dugun mendi martxan eta ondorengo bazkarian eta festan parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizue.

Guztion artean gelditu dezakegula, AHTrik ez!

Durangaldeko AHT Gelditu! Elkarlana

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zerbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia



Sergio Murillo EAJ

Epe luzera begira, tentalditik ihes

Argi dago, azken boladan, egunkariak hartuz gero, ez dagoela biharamunean zer barri izango den iragartzerik; natura ere menperatzen eban susmoa zeukan gizarte hau, eta ahoskatu eziniko sumendi batek ziztu bizian jarri dau-eta Europa osoa hankaz gora.

Egiari zor, hurrengo hiletan egunkarietan zer barri izango dogun jakiteak erabat ezinezkoa emoten dau. Aldiz, urte beteren buruan hauteskundeak izango ditugula kontuan izanda, epe motzeko proposamenen erneztzeen ikusle bihurtzeko zorian gogozela uste dot.

Finlandian izan nazeneko ikastaldi bat partekatu nahi nekez hemen. Izan be, hango hezkuntza sistemaren eta gizarte politiken arrakastaren gakoa zein den galdetutakoan, epe luzera egindako apustuen eta gizarteko akordio zabalek eutsitakoan ondorio zirela azaltzen euskuen. Hori praktikara eramateko, besteak beste, legebiltzarrean, 'Etorkizuneko Batzordea' zeukien, bertan herriarentzako ardatz izango ziren proposamenak eztabaidatuz eta adostuz. Inork irudikatu leike horrelako ezer gure herrian?

Hurrengo hiletan epe motzeko proposamen ugari entzungo dogulakoan nago. Bien bitartean, etzidamuko Durangaldea gorpuzten joango diren proposamenean lan egiten jarraituko dogu EAJn; Durangoko industriagune barrirako oinarriak jarritz, Eusko-Trenen egoitza Durangora ekartzeko eskatuz, Durango atsegina go bat izateko trenbidea ahal bait arinen lurperatzeko borrokatuz edo babeseko etxebizitzak sustatuz, besteak beste.

Finlandian Etorkizuneko Batzordea zeukien herriarendako ardatz izango diren proposamenerako

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2010eko apirilaren 23a - 9. urtea - 370 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:		
	Abadiño	Elorri	Mallabia
	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

BERBAZ >

“Ikasleek gertuko pertsona moduan ikusten gaituzte”

Maiatzaren 1ean Ibaizabal Ikastolaren 10.urteurrena ospatzeko jaialdia antolatzen dabilta buru-belarri.

Duela hamar urte, 1999ko ibilaldiaren ondoren sortu zen Ibaizabal ikastola. Aurten betetzen ditu 10 urte, eta ospatzeko ekitaldiak antolatzen dabilta. Ia hasieratik dabilta Ibaizabalen beharrea Ana Vidal eta Izaskun Gonzalez irakasleak. Urte hauetan irakatsitakoaz eta batez ere ikasitakoaz jardun dugu berbetan.

Zelan doaz maiatzaren 1erako antolatetarak?

I.G.: Egitaraua antolatuta daukagu, eta orain bazkaltzeko zenbat jende etorriko den jakin behar. 400 bat lagun etortzea aurreikusten dugu, baina oraindik ezin jakin!

A.V.: Galdakaoko Oxabi taldekoak etorriko dira, erromeria egiten. Bertan gure ikasle ohi bat dago. Zornotzako Zaparrada batukada ere etorriko da: hor ere ikasle ohiak daude. Ikasle ohiak oso prest agertu dira parte hartzeko. Batzar batzuk eduki ditugu, eurek zer antolatuko luketen jakiteko, eta polita izan da aspaldi ikusi bakoekin kontaktua berritzea. Askok kanpoan dabilta; Granadan, Perun, Alemanian... eta handik idatzi digute ezin direla etorri baina informazioa bidaltzeko eskatzen.

Hamar urtean gauzak asko aldatu dira?

A.V.: Ni bigarren urtean hasi nintzen. Gogoratzen dut dena hankaz gora zegoela. Oraindik obretan zebiltzan, eta gu klaseak ematen, ez zen ezer entzuten... eta oso ikasle gutxiagaz hasi ginen. Astiro-astiro ikasle gehiago etorri dira. Orain batxilergoan ia 200 ikasle daukagu, eta orain hiru urte hasitako Haur Hezkuntzako zikloan 40 bat.

10 urtean zenbat ikasle pasatu da Ibaizabal ikastolatik?

I.G.: 800 bat. Jende asko da. Durangon bizi naizenez sarri ikusten ditut. Aurpegiekin gogoratzen naiz normalean. Ikasle ohiak, gainera, lantzean behin etortzen dira bisitan. Ibaizabalen akordu ona dutela uste dut.

Alderik igarri duzue orain dela hamar urte eta oraingo ikasleen artean?

I.G.: Beharbada lehen parte-hartzaileagoak ziren, eta orain antolatzeko eta ez dira hain prest agertzen. Dena prest badago parte hartuko dute, baina konpromisorako jarrera negatiboagoa daukate. Hori, baina, gizarte osoan pasatzen dabilena da. Euskara gutxiago erabiltzen dutela ere igarri dut. Baina oso jende jatorra da, eta ikastolan oso giro ona egiten dute.



“Ikasle ohiak ideiak batzeko batzarrak egin ditugu urteurrenerako”

Adin gaitza izaten da. Ikasketekin zelan jarraitu ere erabaki behar izaten dute...

A.V.: Nik aldaketa handiak ikusten ditut. Ume-ume etortzen dira, eta bigarren mailan ia berba egiteko beste era bat eta guzti daukate. Niretzako oso aberasgarria da.

I.G.: Justu adin horretan sozialki gauza berri pilo bat dabilta esperimintatzen. 16 urtetan ikastolan egon eta gero, hona etorri eta jende

“Ikasleek ez daukate arazorik edozein kezkatetik gugana jotzeko”

berria ezagutzeak asko aberasten dituzte. Gauza asko daukate buruan.

A.V.: Ikasketetan kontzentratzea asko kostatzen zaie, ez delako euren lehentasuna. Normala da: kirolak, maitasun kontuak... garrantzitsua goak dira eurentzat.

Giroa azpimarratu duzue. Ikastolaren bereizgarria da?

A.V.: Lehenengo momentutik saiatu

Ana Vidal eta Izaskun Gonzalez •

▪ Ibaizabal ikastolako irakasleak dira

gara giro ona mantentzen ikasle eta irakasleen artean, eta asko zaindu dugun kontua da hori; ez bakarrik klaseetan, klaseetatik kanpo ere bai. Jaialdietan, Udaberri Festan eta Gaztañerrearrean ikasle ohiak eta gurasoak ere etortzen dira kanpotik.

I.G.: Klasetik kanpoko ekintzetan ikasleek irakasle paperetik kanpora ikusten gaituzte, eta hori ona da. Gero, ez daukate arazorik ikasketekin dauzkaten arazoengatik edo beste arazoren bategatik gugana etortzeko. Irakasle gelan joan-etorri asko egoten da. Oso gertuko tratua daukagu. Hori bai: klaseetan distantzia mantentzen dugu.

Anekdotak bana kontatzerik bai?

A.V.: Nik gogoratzen dut, Olatzek, lehen euskara ematen zuen irakasle batek, behin kontrolak etxera eramanean zituela zuzentzeko. Kotxe gainean utzi zituen azterketak, eta ahaztu zituen han, hasi zen arrankatzen, eta azterketa guztiak airean! Gu kanpoan geunden, eta konturatu egin ginen. Denak paperak batzen!

I.G.: Beste irakasle bik, Pedro Pablok eta Urkok, petardoak erosi eta bota zituzten behin. Tabernan zeuden jubilatua aztoratuta irten ziren!

A.V.: Beste batean Pedro Pablok berak irakasle berri bat zetorrela eta, Eroskiko galtzontziloen modetara zela esan zien ikasleei.

I.G.: Bai, egia esan, irakasleen artean beti eduki dugu oso giro ona. Beti egoten da umorea gurean. Ondo moldatzen gara, eta garrantzitsua da; lan asko daukagun garaietan, giro horrek konpentsatu egiten gaitu. ■ A. Ugalde

EKONOMIA[>]

>ABADIÑO

Inyektametal enpresako langileak urtarriletik daude hitzarmena negoziatzen, eta, LAB sindikatu-ko ordezkariak azaldu duenez, bost batzar egin dituzte enpresa eta beharginek dagoeneko, baina ez dute akordiorik lortu; enpresa "pasibotasunez" jokatzeko dabilela adierazi dute. Astearte gauean langileek batzar orokorra egin zuten, eta orduan erabaki zuten ekintzen protokoloekin hastea, hau da, *Bidezko hitzarmen baten alde* leloa duten kartelez josi dute enpresa eta Traña-Matienako kaleak. Hasierako pausua hori izango dela aipatu du LAB sindikatu-ko ordezkariak, "orain enpresaren erantzunaren zain gaude, ea enpresak jokatzen duen bidez aldatzen duen eta gero ikusiko dugu ekintzekin jarraitu ala ez".

"Enpresaren erantzunaren zain gaude, eta ikusiko dugu ekintzekin jarraitzen dugun"

Aluminio galdaketa egiten duen enpresa honetan 225 behargin daude lanean. Langileek eskara ekonomikoak egiten dituzte, batik bat; BEZA eta apur bat gehiago, hobari finkoa parekatu... ■ G.A.

Inyektametaletako langileak "bidezko akordioaren alde"

Beharginek eta enpresak bost batzar egin dituzte, baina akordiorik barik



Beharginak kartelez josi dituzte enpresa eta Traña-Matienako kaleak.

>ZORNOTZA

Langileen protesta, Alcoa-ko lan-taldean sartu ditzaten

LAB sindikatuak kontzentrazioa egingo du gaur, beharginei "elkartasuna" adierazteko

Zornotzako Alcoa enpresa aurrean martxoaren 29tik egunero protestan dabiltza hogeitahortik behargin baino gehiago, Alcoa-ko lan-taldean sartu ditzaten eskatuz. LAB sindikatuak gaur 12:00etan langileekin bat egingo du, "elkartasuna" adierazteko.

Zornotzako Alcoa enpresak hainbat urtean azpikontratatu-ko enprekin lan egin du. Orain urte bi Alcoa azpikontratatu ziharduten 50 bat langilek "Alcoa-

ko lan-taldean sartzea eskatuzuten epaitegian, langileen lagapen ile-gala argudiatuta", eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiak Alcoa behargin horiek lan taldean sartu behar zituela ebatzi zuen, enpresak erabakia Auzitegi Gorenera errekurritu zuelarik.

Prozedura garatu bitartean, LABen arabera, "krisi sasoi aprobeztatuz, Alcoa azpikontratatu zituen enprekin kontratu merkantila desegiten hasi zen". ■ J.D./G.A.

>DURANGALDEA

Euskaldendak: merkatarien interesen aldeko konfederazioa

Bizkaiko merkatarien elkarteak, Gipuzkoakoak eta Okelbiz Bizkaiko harakin elkarteak sortu dute konfederazioa

Herriko merkatarien elkarte bultzadaz, Euskaldendak konfederazioa sortu dute Bizkaiko merkatarien elkarteak (Bizkaidendak), Gipuzkoakoak (Dendar-tean) eta Okelbiz Bizkaiko harakin elkarteak. Guztira, 5.000 bazkide dira. Gizarteak duen antolakuntza bera izatea "beharrezko" ikusten zuten; hau da, Aldundia, Foru Aldundia eta Eusko jaurlaritzak dagoen moduan, herriko elkarteak, +Dendak eskualdean, Bizkaidendak eta orain Euskaldendak egotea. Horrela, merkatarien interesak esparru guztietan defendatzeko.

Euskaldendak konfederazioak hainbat helburu ditu: hirigintza arloan, Xabier Zelaia Euskaldendak konfederazioko lehendakariordeak azaldu duenez, "hiri inguruan saltoki-guneak jartzeko aukerak aztertzea, eta ondorioz herriak eta hiriak hil egiten dira".

Bestalde, Zelaiak azaldu duenez, "gure helburua modernizazioa da, bai dendetan eta baita pentsaeran ere"; hau da, berrikuntza herriko dendetara ekartzea, horrela "saltoki handiekin lehiakorrago izateko". Beraz, "pilak jartzea behar dugu, formazioaz gainera, ondo erosi ondo gestio-natu eta ondo saltzeko".

Dendetan berrikuntza dute helburu, "saltoki handiekin lehiakorrago izateko"

Lan eremuan, federazioak gehien ordezkaritza onartu eta hitzarmen kolektiboan estilo berria bultzatuko dute.

Euskaldendak merkataritzaren esparruan euskararen normal-kuntzaren alde lan egingo dutela ere adierazi dute. ■ G.A.

■kolaborazinoa



Javier Meruelo
CNT sindikatua

Iraultzaren mamua

Iraultzak ez dira kasualitatez gertatzen, jatorri bat daukete eta jatorri horrek irakurketa asko eduki ahal ditu. Normalean herriaren pazientzia agortzen denean fenomeno sozial hori agertzen da. Gaur egun, "iraultza" izenak ez du prentsa oso ona, baina historiak irakasten digun bezala, egoeraren arabera zentzua aldatu ahal da. Edozein eskolatan Frantziar Iraultza ikasten denean, gertakari positibo bat bezala onartzen da. Garai hartan, burgesiaren iritzi, Antzinako Erregimenarekin amaitzea legitimoa zen. Robespierren hitzetan: "Luis XVI. hil behar da aberria bizitzeko". Imajina dezagun gaur egun kazetari bat modu horretan mintzatzen dela... Baina momentu horretan Robespierre jauna boterean zegoen, eta botereak ez biolentzia bakarrik, moralaren monopolioa ere badauka. Dominique Strauss NDFren zuzendariak esan duenez, "erreforma ekonomikoak atzeratzen jarraitzen badugu frustrazio orokorrak matxinada soziala ekarri ahal du". Sistema hipokrita honen erreferente bat era horretan adierazten bada, nire ustez, zerbait esan nahi du. Hauek ez dira txantxetan ibiltzeko kontuak NDFrentzat. Klase arteko borroka ez ote zegoen hilda? Hori nahi dute, baina Zapaterok, tolerantzia eta demokraziaren bermatzaileak, milagarren aldiz erreforma berri bat jarri nahi digu. Espekulazioa baimendu dutenak orain gerrikoa estutzen ari zaizkigu. Gu ez gara izan politika ekonomiko ustel honetan erabakiak hartu ditugunak, baina orain horren biktimak gara.

Neoliberalismoa martxan jarri denetik, ondorioak argi ikusten ari gara. Zaldi basa honekin, gaur egungo gazteen lan baldintzak (lanean daudenak) gero eta gehiago murrizten ari dira. Milaka adibide jarri ahal ditugu. Galdetu Telefonican orain dela 30 urte lanean egon zen emakume bati ea zenbatekoa zen bere soldata eta zenbat kobratzen duen bere seme-alabak gaur egun konpainia berean. Eta, gainera, ama ez zen kontratu prekario batekin hasi eta ez zituen karrera bat edo bi. Gora aurrerapena!

ZARATE ELEXP
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA>



MUSIKA> KONTZERTUA

Audiencen laugarren diskoaren astinaldia

Azaroan euren eskualdean, Gernikako Lizeo antzokian, egin zuen Audience taldeak *A shake in calm water* disko berriaren aurkezpen kontzertua. Busturialdean 1999an sortutako taldea da Audience boskotea.

BideHuts zigiluagaz kaleratu dute gernikarrek euren azken lana; taldea osatu zutela hamaika egingo dituzten urtean plazaratu dute gainera, *Ashake in calm water* deituriko laugarren diskoa.

Rocka abiapuntu izanda, euren instrumentu eta ahotsekin esperimentatuta sortutako kantak dira *Ashake in calm water* diskoan aurkeztu dituztenak, eta apirilaren 30ean Plateruenean zuzenean eskainiko dituztenak.

Piano, tronpeta, saxofoi eta gitarra doinuen uztarketa da Audiencen laugarren lanekoa: funk zein blues erritmoak gogora ekartzeko kantek osatzen dute *A shake in calm water*.

Ez da hau Audience eskualdean zuzenean entzuteko dugun lehenengo aukera —oraingoaren aurretik ere Durangon zein Elorrion jotakoak dira—, baina aprobetxatzeko modukoa da Hannot Mintegia (ahotsa, gitarra eta tronpeta), Gaizka Insunza (ahotsa, gitarra eta pianoa), Ager Insunza (ahotsa, biolina, pedal steel gitarra, gitarra eta pianoa), Andoni Lauzirika (baxua) eta Mikel Sagarra (bateria eta perkusioak) zuzenean entzuteko aukera. ■ I.E.

Apirilaren 30ean 'A shake in calm water' diskoa aurkeztuko dute Plateruenean

12 'El idiota en Versailles' eskualdean

Egunotan Elorrio, Durango eta Zornotzako antzokietan ikusgai dugun *El idiota en Versailles* antzezlan klasikoaz goatzera gonbidatu gaituzte herritar guztiok.



13

Juanjo Oteroren 'Hamster'

Apirilaren 30ean, Durangoko San Agustinen du Juanjo Otero iurretarrak bere azken antzezlan aurkezteko hitzordua. Elkarrizketa izan dugu beragaz.

ANTZERKIA > EMANALDIA

'Un idiota en Versailles' lana Durangaldeko hiru antzokitan

Elorrioko Arriola, Zornotza Aretoa eta Durangoko San Agustin antzokiek elkarlanean antolatatu dituzte Valentziako Arden taldearen hiru emanaldiak

Antzerki obra klasikoaren moldaketa da gaur, bihar eta etzi Durangaldeko antzokietan ikusgai dugun *El idiota en Versailles*. Boterearen eta artearen arteko hartu-emanaren eta itxurakeriaren gaia jorratzen du Molière antzerkigile frantsesaren eta Luis XIV.aren gortearen garaiko bizimoduari eta erlazioei buruzko moldaketa honek.

Durangoko Aitziber Irigoras alkateak eta San Agustin eta Arriola antzokietako programatzaileek beren-beregi gonbidatu gaituzte asteburuko emanaldietarako.

Boterearen eta artearen arteko hartu-emanaren eta itxurakeria jorratuz

Arriolan gaur, Zornotza aretoan bihar eta San Agustinen domekan

Iñaki Larrañaga Arriolako programatzaileak nabarmendu duenez, "antzezleen lan oso profesionalak eta garai bateko gorteko janzkera imitatzen duen jantziteria apartak" egiten dute obra berezi. Gure eskualdean halako lan bat ikusteko urteak itxaron behar ditugula eta asteburu honetako aukera paregabea dela azpimarratu dute: gaur, barikua, 22:00etan Elorrioko Arriolan, bihar 20:00etan Zornotza Aretoan eta Durangoko Agustinen domekan 19:00etan dugu gai unibertsalei buruzko ekoizpen handia. ■ I.E.



PINTURA > ERAKUSKETA

Fernández margolari abadiñarraren kolore biziko koadroak Errotan

Bihar arte dago erakusketa zabalik; bihar, bestalde, 'Cocidito madrileño 2' dago Errotan

Apirilaren 24ra arte daude Fernando Fernández matienarraren margoak bere herriko Errota kultur etxean ikusgai. Oihala eta kortxo gainean egindako koadro koloretsuak dira erakusketako lanak.

Kandisky, Dalí eta Picasso lako margolarien lanaren jarraitzailea da Fernández, eta euren koadroen erreplika koloretsuak egin ditu bere herriko erakusketarako.

Lehenengoz erakutsi ditu margolari abadiñarrak bere lanak, eta, besteak beste, Pablo Picasso malagarren *Mujer con sombrero* edo *La niña* koadroak berregin ditu. Azken urtebetean egindako koadroak dira ikusgai daudenak.

'Cocidito Madrileño 2'

Fernán데zen erakusketa itxiko den egunean, apirilaren 24an, Errota kultur etxean bertan Glu Glu ekoiztetxearen *Cocidito Madrileño 2* antzezlanaren emango dute. Radio Euskadiko izen bereko programan oinarrituta, Aizpea Goenaga eta Galder Pérezek zuzendu dute bihar, 20:00etan, Errotan eskainiko duten antzezlanaren. ■ I.E.



Picasso eta Kandinsky pintoreen lanak berregin ditu egileak

LITERATURA >

Liburuaren Nazioarteko Egunerako eskaintza

Gaurko, nazioartean liburuaren eguntzat izendatuta dagoen apirilaren 23rako, eskualdeko hainbat liburutegi eta kulturgunetan antolatatu dituzte ekitaldiak.

Adin guztietako herritarrak literaturara gerturatzeko helburuz, egun berean eskualdean bi emanaldi dituzte, esaterako, Yolanda Arrieta eta Juantxo Zeberriok: gaur, 20:00etan, Iurretako Ibarretxe kultur etxean dute *On-off* liburuaren aurkezpena, eta Berrizko kultur etxean egongo dira 22:00etan. Arrietaren liburuaren "aurkezpen musikatu" egingo dute idazle etxebarrirak berak eta piano-jotzaileak.

Bestelako ekitaldiekin ospatu dute gaur liburuaren eta egile eskubideen nazioarteko eguna Durangaldeko ikastetxe zein liburutegietan. ■ I.E.

'On-off'-en emanaldi bikoitza Liburuaren Eguna dela-eta

GEURE DURANGALDEA



Iñaki Etxezarraga
Musikaria

Desioa!

Desioa zer den azaltzea ez da erraza. Bakoitzak bere desioak edukitzen ditu, norberak bere fantasiak bizi nahi izaten ditu. Baina musika eta desioa nahastuz gero, zoramen da nagusi norberaren barnean.

Hori izan zan aurreko barikuan Plateruenean. Musika eta desioa. Eta jende artean zoramen. Aretoa bete-beteta, giroa bero-bero, argi gorriak nagusi eta denok elkar-tzen gintuena: Desioa! Musikaz gozatzeko desioa.

Eszenatoki gaineko jendeak transmititzen dituen sentimenduak sentitzea da garrantzitsuena, eta hori ondo daki egiten Doctor Deseoko Francisek, jendearekin konexioa bikain egiten du. Badaki momentu bakoitzean nora eta norengana jo. Askotan badirudi kantekin larrua jotzen ari dela, eta horrek publiko oraindik gehiago berotzen du. Publikoko edonorekin dantzatu eta musukatzeak giroa berotu egiten du. Eta hor sortzen da askorengan desioa!

Askok beragandik gertu egon nahi dute, bere ahotsa gertutik sentitu eta transmititzen duena barneratu. Inbidia ematen du duen adinarekin nola dagoen ikusteak.

Tirolina batetik eskegi eta grabitateari desafio eginez, jendearen gainean hegan pasatzeak tentsio ikaragarria sortzen du ikuslearengan, eta bera bitartean gozaten ari da eta gure desioa areagotuz doa.

Baina berarekin batera agertu ziren Aiora, Anari eta Maialen, eta guztiok aho bete hortz gelditu ginen euren ahots eta doinuekin. Sentimendua eta musika nahastuz, ahots ezberdinak nahastuz, guztiongan nagusitu zen desioa.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

Gaur du Durangaldeko Bertsolari Txapelketak lehenengo kanporaketa

Sei bertsolarik jardungo dute, gaur, Mallabiko Izar Gorri elkartearen izango den hitzorduan

Gaur 21:00etan Mallabiko Izar Gorri elkartearen egingo duten aforiaren ondoren da Durangaldeko Bertsolari Txapelketaren lehenengo kanporaketa saioa: Gorka Lazkano eta Miren Amuriza berriztarrak, Garikoitz Sarriugar-te zaldibartarra, Unai Ormaetxea zornotzarra, Julen Sololuz ermuar-raketa Beñat Ugartxetxea mallabitarrek jardungo dute kantuan.

Izar Gorri elkartearen da aforia, 21:00etan, eta ondoren saioa

Maite Berriozabalek emandako gaiei erantzunez, hiruna bertso zortziko nagusi zein txikian ofiziotan, bertsoaren lehen puntua emanda, zortziko handian zein txikian, eta gai biren inguruan doinu eta neurri librean osatu behar dituzte euren ber-

tsoak. Ainhoa Munitxa, Andoni Larrea eta Izaskun Ellakuriagak emango dute saioaren puntuazioa eta sailkapena.

Bigarren kanporaketa apirilaren 30eko saioan egingo dute, Iurretako Oromiño auzoan egingo duten afalostean. Bertan egingo duen lana puntuatuko ez den arren, gaurko Mallabiko saioan puntuazio onena jasotzen duen bertsolaria, Ander Aldazabal, Eneko Abasolo "Abarkas", Jon Ander Urkiaga, Ander Salaberria, eta Eñaut Uruburuk kantatuko dute datorren barikuan. Mallabiko eta Oromiñoeko kanporaketen ondoren, maiatzaren 29an Berrizen izango da finala. ■ I.E.

Maite Berriozabalek emandako gaiei erantzungo diete



TRAÑA-MATIENAKO JAI EGITARRAUA

Apirilak 24, zapatua

- **10:00etan**, Eskola arteko benjamin mailako areto-futbol partidua: Traña-Matiena H.E. B – Nevers B.
- **11:30ean**, Saskibaloit partidua eskoletan: Traña-Matiena A – Traña-Matiena B.
- **15:30ean**, Areto-futbol txapelketa eskoletan, Abadiñoko Iratxoak taldeak antolatuta.

Apirilak 27, martitzena, Donien Atxa Eguna

- **19:00etan**, Koadrila guztien bilera Trañaiko zubian.
- **20:00etan**, Donien Atxa altxatzea. Zo Zongo txarangak alaituko du giroa. Iluntze dantza taldearen saioa eta urteko lagun ospetsuena saritzeko ekitaldia.

Apirilak 28, eguaztena San Prudentzio Eguna

- **11:00etan**, Meza nagusia.
- **11:30ean**, Umeen kalejira Goloka taldearekin.
- **11:30ean**, Umeendako jolasgunea Traña plazan. Euria bada, frontoian.
- **14:00etan**, Jubilatuen bazkaria.
- **15:30ean**, Umeendako jolasgunea Traña plazan. Euria bada, frontoian.
- **16:00etan**, Afrikako orrazkera tailerra eskoletako gimnasioan.
- **16:30ean**, Margo txapelketa, umeentzako, Traña plazan.
- **18:00etan**, Umeen pirata jaialdia Traña plazan.
- **18:30ean**, Txokolatada Traña plazan.

Apirilak 30, barikua

- **19:30ean**, poteoa, Tamega txarangak alaituta.
- **21:00etan**, San Prudentzio Texas Holdem Poker Txapelketa eskoletako gimnasioan.
- **23:00etan**, Ritmo Joven taldearekin jaialdia Trañabarren etorbidean.
- **23:00etan**, Kontzertuak Traña plazan: Ymotek, Alerta eta Tres41.

Maiatzak 1, zapatua

- **10:00etan**, Benjamin mailako areto- futbol partidua eskoletan: Traña-Matiena H.E. A – ETK A.
- **10:30ean**, Txistularien kalejira.
- **11:30ean**, Areto-futbol neurketak eskoletan: Traña-Matiena A, B eta Nevers.
- **12:00etan**, Paella txapelketa merkatu plazan.
- **13:00etan**, Iluntze dantza taldearen saioa.
- **16:00etan**, 'Ugasio' txapelketa merkatu plazan.
- **16:30ean**, Eriz magoa merkatu plazan.
- **17:00etan**, San Prudentzio Pilota Txapelketaren finala frontoian.
- **17:30ean**, Brasilgo dantza erakustaldia: Rio Samba Show, merkatu plazan.
- **18:00etan**, Xake erakustaldia Pino plazan.
- **18:00etan**, Tortilla Txapelketa merkatu plazan.
- **22:00etan**, Su artifizialak.
- **22:30ean**, Bertsolariak frontoian: Eñaut Uruburu, Miren Amuriza, Anjel Mari Peñagarikano eta

Amets Arzallus. Gai-jartzaile: Eneko Abasolo Abarkas.

- **23:00etan**, jaialdia Trañabarren etorbidean: Casting.

Maiatzak 2, domeka

- **10:00etan**, Txistularien kalejira. Goizean zehar, txahala erreko du Geu Be elkarteak Traña plazan.
- **10:30ean**, Nekazari, artisau eta abeltzainen azoka Traña plazan.
- **19:00etan**, Herri-kirolak Traña plazan.

Maiatzak 7, barikua

- **20:00etan**, Koreografia jaialdia Irati taldearen eskutik, Traña plazan.
- **21:00etan**, San Prudentzio Frontenis Txapelketaren finala frontoian.
- **23:00etan**, Diskoteka Traña plazan: Onda Futura taldea.

Maiatzak 8, zapatua

- **11:30ean**, Umeendako jolasak Galizia plazan.
- **12:00etan**, Quad-ak umeentzat, Galizia plazan.
- **14:30ean**, Bazkari herritarra Traña Plazan tabernekin, txosnek eta Udalak antolatuta. Euria bada frontoian. Txartelak 12 eurotan salgai taberna eta txosnetan.
- **18:00etan**, Playback Txapelketa Galizia plazan.
- **19:00etan**, Poteoa Maskarrada taldearekin, Abadiñoko Iratxoak taldeak eraruta.
- **22:00etan**, Su artifizialak.
- **22:30ean**, Mozorro lehiaketako sari banaketa Galizia plazan.

- **23:00etan**, Berbena Galizia plazan: Alto Standing taldea.
- **23:00etan**, Rock jaialdia Traña plazan: Los Carniceros del Norte, Metalmania, La Leñera eta The Bond Scott Band.

Maiatzak 9, domeka

- **12:00etan**, Umeentzako jolasak Traña plazan.
- **12:30ean**, Perretxiko pintxoak eta salda Trañabarren etorbidean, Geredixa mikologi elkarteak eraruta.
- **12:30ean**, Potxin eta Patxin pailazoak Trañabarren etorbidean.
- **18:30ean**, V. Danborrada, De Norte a Sur taldeak antolatuta. Sugari txarangak alaituko du danborrada.
- **20:00etan**, Donien Atxa botako dute, jaiak agurtuz.

*Apirilaren 26tik maiatzaren 9ra bitartean, kartel lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai Errota kultur etxean.

ONDO
PASA!



Txopoa altxatuta hasiko da jaia

Aurreko asteburuan hasteko joera aldatuz, hilaren 27an hasiko dira Sanprudentzioak

Aspaldian betetzen ez zen tradizioa berreskuratu du aurten Jai Batzordeak. Izan ere, sasoi batean txopoa altxatzeagaz batera hasten ziren Traña-Matienako jaiak. Azkeneko urteetan aurreko asteburuan ere hainbat ekintza antolatu izan dituzte. Denak ez zeuden gustura, ordea, erabaki horregaz: "Hainbat bizilagunek jaietako zapia ez zuten txopoa-aren igoerara arte jantzen, protesta moduan", azaldu du Jon Larruskain Jai Batzordeko kideak.

Bestela, ohi den legez, askotari-ko ekitaldi sorta osatu dute jaietan. Gainera, aurten Jai Batzordea arduratu da ekitaldiak antolatzeaz. Hori ere nobedadea da, hainbat urtean Jai Batzordea deseginda egon delako eta Udala bakarrik arduratu

izan delako egitaraua osatzeaz.

Aurtengo aurrekontua iazkoa baino 5.000 euro gutxiagokoa da. Iaz 75.000 euro bideratu zituen Udalak Sanprudentzioetara; aurten, 70.000 eurogaz moldatu behar izan dute antolatzaileek.

Egitarauari dagokionez, azken aldian modan ipini dela-eta, Poker Txapelketa antolatu dute. Texas hold'em modalitatean jokatzeko aukera egongo da apirilaren 30ean, barikuan, 21:00etatik aurrera.

Urtero antolatzen den bertso

Iaz 75.000 euroko aurrekontua izan zuten jaietarako; aurten 70.000 euro izango dituzte



J.Fernandez

saioak arrakasta handia izan ohi du. Eskolako gimnasio aretoan egin izan da hainbat urtean; ondoren, Errota kultur etxeak hartu zuen ekitaldia. Batean zein bestean, ordea, arazo handi bat zegoen: eskari handia eta espazio gutxi. Horregatik, aurten plaza ondoko pilotalekura tokialdatu dute: "Horrela, jende gehiagok izango du bertsolarien saioa zuzenean jarraitzeko aukera", argitu zuen Larruskainek.

Antolatzaileek aurten ahalegin berezia egin dute gaztetxoei begira. Horrela, maiatzaren 2an umeendako ipuin lehiaketa antolatu dute Traña plazan. Maiatzaren 8an umeendako jolastokia egongo da Galizia plazan. Hilaren 9an, berriz, Potxin eta Patxin pailazoak Trañabarren etorbidera etorriko dira, umeen gozagarri.

Aipagarria da Abadiñoako Iratxoak taldeak maiatzaren 8rako antolatu duen Maskarrada ere. Kanean jai giroa zabalduko dute, 19:00etatik aurrera.

Bertso saioa plaza ondoko frontoira aldatu dute, jende gehiagok ikusteko aukera izan dezan

Aurten ahalegin berezia egin dute gaztetxoei begira; besteak beste, Potxin eta Patxin pailazoak datoz



J.F

GISASOLA PENTSUAK SL

- Pentsuak oro har • Haziak • Etxeko animaliak • Opariak •
- Sasoiko loreak • Arrain Tropikalak • Lorezaintzako produktuak •
- Indiolar, oilo eta oilaskoaren salmenta •
- Nekazaritzako burdindegi produktuak •

Trañabarren 27 • 94 681 66 87 • 48220 MATIENA-Abadiño

Garage Miguel

- GARBIKETA
- TAPIZERIAK
- MEKANIKA
- GURPILAK

Arzubia, 10 A
1 Pabiloia
48220 Matiena
Tel.: 94 681 91 61
Fax: 94 621 82 64

anboto

Durangaletako usaina ezin deusugu transmititu, baina Durangaldea entzun, ukitu eta ikusteko...

anboto komunikabideak

salmenta, konponketa eta boutique

MOTOS TABIRA

kontseionario ofiziala
BENELL • SCORPA • AJP
KEEWAY • PIAGGIO

Pol. Arzubia, 10-b pabiloia 48220 MATIENA-Abadiño

94 681 4068
www.motostabira.com

HARATEGI PINILLA

ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

EURO LABEL

BASERRIKO OKELA

SAIARRUTAKO HARATEGIA

KALITATEA

Trañabarren, 29
Tel.: 94 681 51 27
MATIENA-ABADIÑO



Oregi Taberna



Ospatu San Prudentzioak gurean!

☎ 94 681 07 83 • Matiena (Abadiño)

MUEBLES DE COCINA Y HOGAR

ARRIANDI

SUKALDE ETA ETXEO ALTZARIAK

Santos sukaldean banatzailea

Tel.: 94 620 26 56 Abadiño Tel.: 94 625 73 18 Gernika



Armando - Mary



Trañabarren, 9
48220 Matiena-ABADIÑO
Telf.: 946817368



R. SAMUR

COMPRESORES
SALMENTA ETA KONPONKETAK

Tel.: 94 681 89 67 Tel./Faxa: 94 620 09 42

Traña Industriagunea -D-, 13 pabilioia (Abadiño) E-mail: REPSAMUR@terra.es
www.reparaciones-samur.com

Cafetería · Oxford



Tel.: 94 681 88 84
Trañabarren, 7 • MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)

NEWA CARS MATIENA, S. L.

- Erabilitako autoak erosgai eta salgai
- Autoen mekanika orokorra
- Gorpilak ezartzea
- Autoen garbiketa

ORDEZKARI KOMERTZIAL TEKNIKOAK:
Emilio Rodríguez: 616 552 158
Willy Marco: 664 269 119
Taller: 94 621 60 80
e-mail: ewacars@hotmail.com

Elorriagazar kalea 5 • 48220 MATIENA (Abadiño)

Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: urtiaga.st@terra.es

urtiaga

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AXULEIU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

Urte batzuetan jai batzorderik barik garatu dira Traña-Matienako jaiak. Udalak hartu izan du bere gain jaietako egitaraua osatzeko ardura. Aurten, hainbat lagun enkimenez, berriro ere jaiak antolatzeko lan taldea eratu dute, eta euren izan da jaiak egituratu eta ekitaldiak prestatzeko ardura. Borondatea bidelagun, hainbat batzar egin dituzte azken hileetan, eta datozen aste bietan gozagarri izango dugu bilera horien emaitza. Pili Garcia eta Marian Moreno trañamatenarrak dira Jai Batzordea osatu duten kideetako bi.

Aspaldiko partez, aurten Traña-Matienako jaietako egitaraua prestatzea jai batzorde baten ardura izan da. Noiz eta zelan eman zen Jai Batzordea sortzeko urratsa? Badira hile batzuk lanean hasi ginela. Gu ez ginen hasiera-hasierako batzarretan izan, baina bai askotan. Guztira, 20 bat lagun ibili gara lanean, eta hainbat eragile-ren laguntza ere izan dugu. Asmatu dugun ala ez esatea ez dagokigu guri; hori jaietako ekintzetan parte hartzen dutenek esan beharko dute. Hala ere, gu gustura gaude egindako lanagaz.

“Bakoitzak bere ikuspegia dauka jaietara buruz, baina ideia denak entzuten eta akordioetara heltzen saiatu gara”

Zelako giroa egon da zuen artean? Oso ona. Bakoitzak bere ikuspegia dauka jaietara buruz, logikoa den moduan, baina ahal zen neurrian denak bateratzen saiatu gara. Batzarrak ideia guztiei zabaldua egon dira, eta denen iritzia entzun dira. Ondoren, zer eraman aurrera eta zer ez erabaki behar izan dugu. Hori erabaki ondoren, lanak banatu genituen, eta bakoitzak antolakuntzaren atal baten ardura hartu du. Lan asko egin dugu, baina behin dena eginda dagoenean eta egitaraua esku artean hartzean poza ematen du.

Egitaraua osatu orduan zer irizpide hartu duzue kontuan? Ahalik eta jende gehienarengana ailegatzeko izan dugu helburu. Denen gustuak betetzea ezinezkoa da, baina ahalik eta esparrurik zabalena batzen ahalegindu

“Ahalik eta zabalena a

Aurten, aspaldiko partez, Ba



gara: hainbat adin tarterentzako ekitaldiak antolatu ditugu, eta jatorri askotakoak.

Aurrekontua iazkoa baino apalagoa izan da. Asko baldintzatu dizue egitaraua? Beti baldintzatzen du, hori horrela da, baina daukagunagaz aurrera egiten jakin dugu. Gure ardura ematen ziguten diru-atala ahalik eta ondoen kudeatzea izan da. Beti botatzen da zeozer faltan egitarauan, baina zabala izan zedin saiatu gara.



LA MAGDALENA

BASERRI TRESNETARAKO TRANSMISIOAK

ondo pasatu

San Prudentzioetan

BETSAÏDE

ENGLISH SCHOOL

- 1. eta 2. Hezkuntzako errefortzu klaseak
- Ingeles maila guztiak
- Atzerrira bidaiak
- Intentsiboak (uztaila)

Trañabarren, 13 - 3 behe
48220 Matiena - Abadiño
Mug.: 637 41 64 38

ta egitaraurik antolatu dugu”

ai Batzordea sortu dute eta eurek osatu dute jaietako egitaraua



“Sasoi batean koadrilen artean sortzen zen giroa faltan botatzen dugu. Txopoa ipintzeko egunean elkarregaz egiten genuen bidea, eta beste giro bat sortzen zen”

Hainbat talde eta eragileren laguntza azpimarratu duzue.

Bai, elkarlanean egindako sanprudentzioak izan dira, eta esker oneko gaude hainbat jendegaz. Azken batean, denen laguntza ondo etorria izaten da jaiak antolatzerako orduan. Adibide bat ipintzearen, Abadiñoko Iratxoak taldeak Maskarrada ekimena egingo du jaietan; poteoan irten-go dute jaia kalera atereaz. Horrelako ekimenak eta antzeko beste hainbat txalotze-

Pili Garcia•

Marian Moreno •

• Traña-Matienako Jai Batzordeko kideak

koak dira, azken batean, helburua horixe delako: jaietan ondo pasatzea.

Aurtengo esperientzia kontuan hartuta Jai Batzordeak beharrez jarraituko du datozen urteetan?

Nik baietz uste dut. Sanprudentzioak amaitzen direnean jaietako balantzea egin beharko dugu. Orduan ikusiko dugu zertan asmatu dugun eta zertan ez. Hala ere, orain arte egindako bideagaz gustura gaude, eta esango nuke aurten hasitako bideak jarraipena izango duela datozen urteetan ere.

Zuek zelan bizi dituzue Traña-Matienako jaiak?

Herriko jaiak dira, beraz, bereziak dira guretzako; bizitzekoak. Faltan gehien botatzen duguna sasoi batean koadrilen artean sortzen zen giroa da. Gure artean sarritan aipatu izan dugu hori. Txopoen egunean koadrilak batu egiten ziren, eta elkarregaz egiten zuten Traña-Matienarako bidea. Esango nuke koadrilen arteko hartumana estuagoa zela. Hori apur bat galdu egin dela pentsatzen dugu.

Berriro berreskuratu daiteke?

Gaitza da. Bizimodua, gizartea, aldatu egin da edo beste modu batera garatu da. Hala ere, berriro giro hori berreskuratuko balitz, gu pozik! Traña-Matienako jaiak irabazi egingo luketela uste dugu. Dena dela, aurten ere ez da jai girorik faltako!

Aurten zer ekitalditan parte hartuko duzu?

Baten baino gehiagotan, segurutik. Jendea sanprudentzioetara etortzera animatzen dugu. Ondo pasatuko dute, seguru!

VIA LIDER
neumáticos
ETXEBARRIA

MICHELIN BFGoodrich BRIDGESTONE Firestone

uribitarte industr., 6 48220 MATIENA-ABADIÑO (BIZKAIA)
(Hiper Eroskiaren ondoan)
Tel.: 94 623 25 20 - FAX: 94 620 36 22



Bertso jaialdia frontoian

Durungaldekoak zein eskualdetik kanpokoak dira maiatzaren leheneko jaialdirako gonbidatu dituzten bertsolariak. Maiatzaren 1ean, Eñaut Uruburu abadiñarra eta Miren Amuriza berriztarra dira jaialdian parte hartuko duten Durungaldeko bertsolari gazteak, eta Eneko Abasolo "Abarkas"-ek ipiniko dizkie gaiak bertsolariei.

Uruburu, Amuriza, Peñagarikano eta Arzallusek jardungo dute maiatzaren 1eko bertsoa saioan

Su artifizialen ondoren izango da bertso jaialdia Traña-Matienako frontoian, eta Uruburu eta Amuriza eskualdeko bertsolariekin batera Anjel Mari Peñagarikano eta Amets Arzallus ere arituko dira oholtzan.



Tres41, Alerta eta Ymotek kontzertuan

Apirilaren 30erako programatu dituzte Berriz, Zaldibar eta Abadiñoako musikariak biltzen dituzten taldeen zuzenekoak

Martxoan *El final no está escrito* disko berria plazaratu berri duen Tres41 taldea eta Abadiñoako

Alerta eta Ymotek taldeak izango ditugu, apirilaren 30ean 23:00etan hasita, Traña-Matienako San Prudentzio jaietan aukeran.

Hardcore musika egiten du Ion, Pablo, Imanol eta Puro taldekiek osatzen duten Tres41 taldeak, hain zuzen ere, Berriz eta Zaldibar artean sortu duten taldean sortzen duten hardcore musika horixe da San Prudentzio jaietan eskainiko dutena, disko berriko kantetan oinarritutakoa.

Laster disko berria aurkeztuko duten Alerta taldeko abadiñarrak

ere igoko dira apirilaren 30ean euren herriko oholtzara. Diskoa prest dute, eta noiz kaleratuko den segurtatu ezin duten arren, gutxi barru diskoa eskuragarri izango dugu. *Siempre más fuertes* deituko da diskoa berria, eta doinu "azkarragoak" biltzen ei ditu.

Traña-Matienako plazan metal doinuak zabaltzen, bestalde, Ymotek taldekoek jardungo dute.

Martxoan kaleratu zuten 'El final no está escrito' diskoa aurkeztuko dute Tres41 taldekoek

2006an sortu zuten Ymotek, eta hain zuzen urte hartan irabazi zuten Berrizko Gaztetxeko Aldapa make-ta lehiaketa. Partaide aldaketak izan ditu ordutik taldeak, eta boskote moduan dihardute orain.

Maiatzaren 8an

Eskualdeko taldeen jaialdiaren ondoren, jaietako bigarren zapatuan kontzertua eskainiko dutenak rock doinu klasikoagoak dakartzaten lau talde izango dira: AC/DC Australiarren bertsioak egiten dituen The Bond Scott Band, Los Carniceros del Norte, La Leñera eta Metalmania taldeen doinu gogorrek beteko dute Traña plaza, 23:00etan hasita.

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfnua. 94 681 43 85

ESTANKO ALBERDI
Zubiarte, 7 Tel.: 94 681 40 33
MATIENA

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52
Banatzailea:

DOHERTY'S
tel: 946203762
san prudencio 6 matiena(abadiño) **berria**
Atzerriko garagardotan espezialistak Pintxoak
Goizeko 7:30etan zabaltzen dugu



Z E L E T A B E
Auzoa Promociones S.A.



1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak

Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honakoak dauzkate:
 - Sukalde modernoak beharrezko guztiarekin.
 - Haritzeko tarima eta barruko atek. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
 - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.



Iturritxo, 7 behea eskuma • 48220 Abadiño
Tel./Fax: 94 466 89 56

ANTZEZPENA > ELKARRIZKETA

Ikuspuntu komiko batetik, baina egia biribilak oholtzan: 'Hamster'

"Askatasunak beldurtzen gaituela" lako egia biribil eta deserosoak dira apirilaren 30ean Durangoko San Agustinen 'Hamster' aurkeztuko duen Juanjo Otero antzezle iurretarrak ekoitzi duen lanean botatzen direnak



Juanjotero ekoizpenak taldeagaz sortu duzuen lehenengo lana da 'Hamster'? Zelan sortu da egitasmoa?

Antzoki alternatiboen Magalia izeneko topaketa batean sortutakoa da proiektua, 2009an, Avilako gaztelu batean. Hainbat lekutako dantzari, gidoilari, antzezle eta zuzendariak batu eta lan-taldeak sortzen dira topaketa horietan. Gure kasuan, Fernando Soto zuzendaria, Santiago Cortegoso egilea, Laia Oliveras antzezle katalana eta neu batu ginen.

Zelako prozesua izan zen sorkuntza?

Barnetegi batean bezala, hamar egunez ia etenik barik egin genuen lan; oso prozesu emankorra izaten zen. Horrela eratu genuen *Hamster*, eta horrela konurtatu ginen garatzen genbiltzan lana benetan indartsua izan zitekeela; lau taldekideen artean kimika itzela geneukala eta emaitza benetan gustuko

"Barnetegi batean legez, hamar egunez ia etenik barik egin genuen Magalia topaketetan lan"

"Ordubetez oholtza gainean izerdia botatzen dugun antzezle bi gaude"

genuela. Hamar egun horien ondoren hasi ginen antzezlana beste maila batera eraman zitekeela pentsatzen. Hasieratik, ikaragarri gogoko nuen proiektua, eta argi neukan talde horregaz lan egin gura nuela. Horrela sortu nuen Juanjotero ekoiztetxea. Aurretik sekula ez nuen pentsatu enpresa bat sortzea, baina talde honek eta *Hamster* proiektuak bultzatu naute.

Benetan zukua atera diozue Magalia topaketak eskainitako aukerari...

Bai, ikaragarria delako eskaintzen duten aukera: kanpoko jendeagaz lan eginda ohartzeko zara zure sorkuntza zelakoa den; egiteko modu bat badaukagula euskaldunok, esaterako: lanean oso modu berezian inplikatzeko gara, antzerkian dihardugun asko mugimendu sozialetatik etorritakoak gara, post-punk kulturak oso sakon eragin

digu... Hori guztia beste leku batzuetako jendeagaz alderatzea oso da betegarria. Dazkagun aurreiritzi guztiak ahaztuta, esperientzia oso interesgarria izan da hain modu desberdinean lan egiten duen zuzendari batez lan egitea.

Zer testu mota du obrak?

Testuaren egilea bizirik daukan testu batean oinarrituta lan egitea oso interesgarria da, eta ez dugu askotan aukera izaten; gainera, bere testuko berba bakoitza babesten ibiltzen ez den egilea da Cortegoso, eta gozamina da oholtzapetik eszena berriak idazteko gai den autore batez lan egin ahal izatea.

Euskal Herrian, baina, urte asko eman dituzu antzerkia egiten...

Profesional legez, nire lehenengo nomina Comediants taldeak egin zidan 1996 urte inguruan, eta lehenago ere atera izan naiz Euskal Herrikan kanpora lan egiten: orain urte batzuk Vienan egon nintzen dantza ikuskizun bat zuzentzen, adibidez.

Aukera nahikoa dago gurean 'Hamster' moduko lan bat egiteko?

Aukerak lortzea nahiko gaitza da hemen; erakundeek oso zapalduta gaizkate. Gure lanbidea bertan behera utzia dute erabat: krisi garaietan murrizketak egin behar badira, kultura arloan egiten dira, eraikinen bat itxi behar bada, antzokia ixten da... Baina horren guztiaren gainetik, beti defendatu izan dut kanpora ateratzea: maila pertsonalean zein profesionalean oso aberasgarria izan daitekeelako.

Eta zer dauka 'Hamster' antzezlana hain berezi egiten duena?

Lehenengo eta behin, antzezlearen artean dagoen kimika: sortze-prozesua gozamen ikaragarria izan zela. Bestetik, ikuspuntu artistikotik, ordu bete eta hamar minutuz oholtza gainean daukaten guztia ematen duten bi pertsona daude antzezlanean. Testuak egi biribilak botatzen ditu, ikuspuntu komiko batetik. Joko bat da testua; ikusleentako batzuk barrez lehertu eta beste batzuk malkotan uzten dituen. Emozio horiek iratzartzen dituelako da hain berezia ikuskizun hau. Antzezle baten tza, bestalde, gozoki bat da, oso erregistro desberdinetan jarduteko aukera eskaintzen duelako. Oholtzatik botatzen diren egia horien adibide bat: askatasuna aldarrikatzen dugun arren, estutzen gaituen zer edo zer behar dugula; askoz erosoago gaudela atzipetuta.

Zure lana Durangon erakusteko gogotsu?

Bai. Nire lana etxean erakustea oso gogoko izaten dut: beti saiatzen naiz nabilen proiektuak hemen erakusten. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

APIRILAK 23 22:00etan
UEK + THE WET BAND + KRAUSK
KONTZERTUA.Sarrera: 5 euro.

APIRILAK 25 20:00etan
ABORTED + THE RED CHORD + ROTTEN SOUND + THOSE WHO LIE BENEATH
KONTZERTUA.Sarrera: 16-20 euro.

APIRILAK 30 22:00etan
AUDIENCE + MANETT
KONTZERTUA.Sarrera: 8-10 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

EL IDIOTA EN VERSALLES
Arden Producciones
Apirilak 25 • 19:00etan

HAMSTER
Juanjotero Producciones
La Escapista Teatro eta Sala Triangulo
Apirilak 30 • 20:30ean

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

11-94 601 07 76

HITZ

Liburudenda

AGENDA >

>ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Apirilaren 23an, 22:00etan
**UEK+ THE WET BAND
+KRAUSK**

Keu Agirretxeren taldea 'U10' diskoa aurkezten dabil. Hiru kanta berri *Gordetako ilusioak*, *Gizaki ikusiezina* eta *Zure presentzia* UEKen ibilbidea laburbiltzen duen abesti esanguratsuekin uztartzen ditu azken disko honek. Zuzenean entzuteko aukera, beraz, Plateruenean. The Wet Band eta Kraus taldeen doinuak ere han izango da.

ANTZERKIA

ABADIÑO

- >> **'Cocidito madrileño 2'** apirilaren 24an, 20:00etan, Errota kultur etxean.
- >> **'Jules Vernerren azken bidaia'** antzerki saioa ikusgai, apirilaren 28an, 17:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ

- >> **Berrizko Txintxaun kolektiboaren** antzezlan berria, apirilaren 24an 20:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

- >> **'El idiota en Versalles'** gaur egungo gai sozialak aztertzen dituen antzezlan, apirilaren 25ean 19:00etan, San Agustinen.

ELORRIO

- >> **'El idiota en Versalles'** antzezlan ikusteko aukera, apirilaren 23an 22:00etan, Arriolan.
- >> **'Jules Vernerren azken bidaia'** antzerki saioa ikusgai, apirilaren 25ean 17:00etan, Arriolan.

ZORNOTZA

- >> **'El idiota en Versalles'** antzezlan, apirilaren 24an 20:00etan, Zornotza Aretolan.

BERTSOAK

DURANGALDEA

- >> **Durangaldeko bertsolari txapelketako kanporaketak**, apirilaren 23an Mallabiako Izen Gorri elkartearen, gaueko 21:00etan. Apirilaren 30ean lurretako Oromiño txokoan gaueko 21:00etan.

BESTEAK

IURRETA

- >> **Euskaltzale Eguna: Karmelo Etxenagusiarri omenaldia**, apirilaren 24ean 12:00etan Ibarretxe kultur etxean.
- >> **Anderebide** 'Kofradietatik ibilbideak' apirilaren 24an 09:00etan.

- >> **Iurreta Txirrindulari Elkarteak ibilbideak antolatu ditu** apirilaren 24 eta 25ean 09:00etan lurretan.

ZALDIBAR

- >> **Gaztelekua** 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat Txalaparta ikastaroa eta Baseball txapelketa apirilaren 23tik 25era, 16:00etatik 20:00etara Gaztelekuan.

- >> **Zapatublai** apirilaren 24an, 16:00etatik 19:00etara Zapatublain.

- >> **Castet Eguna**. Apirilaren 24 goizean ikur faxisten ezabaketa egingo da. Apirilaren 25ean, goizeko 10:00etan **Santamañezarrera igoera**, udaletxe aurretik irtenda. Gailurrean ekitaldi txiki bat, eta 12:30ean, San Martin plazatik Castet elkarteraino **kalejira** egingo da. Ondoren, Castet elkartearen egoitza aurrean **ekitaldia eta luntxa**. Asteburu osoan zehar 1937ko apirilako egunak gogoratzeko **erakusketa** izango da kalean.

DANTZA

ERMUA

- >> **'Euskal Dantzak. Txindurri Eguna**. Apirilaren 24an 'Plazara dantzara' Adolfo Jainagaren taldea, 18:30ean Orbe Kardenalaren plazan.

Larriandantza, 20:00etan Orbe Kardenalaren plazan. Apirilaren 25ean, Txistularien diana, 10:00etan. Txistulari eta dantzarien kalejira 11:00etan, eta Dantza erakustaldia, Txindurri taldeagaz, 12:30ean Orbe Kardenalaren plazan. Herri-bazkaria eta erromeria Agirrebeña anaiekin, 14:30ean Aritzemendi pilotalekuan.



ERAKUSKETA

BERRIZ

- >> **'Emakumea literaturan'** erakusketa, apirilaren 23an Kultur Etxean.

ELORRIO

- >> **'Gorputz solidoen teoria eta zorientasuna' (umeentzako kontatua)** Fernando de Vicente artista durangarraren lanak egongo dira ikusgai apirilaren 29rarte Iturri Kultur Etxean.

ZORNOTZA

- >> **'Bosteko 2010-01-27' erakusketa**. Elena Goñi, Ramón Pérez, Ignacio Sáez, Leire Ugalde. Apirilaren 28rarte ikusgai. Zelaieta Zentroan.
- >> **'A mesa puesta'** Laka apirilaren 24tik maiatzaren 28ra Zelaietan.

HITZALDIA

ERMUA

- >> **'5 gezur biribil hizkuntzei buruz'** Mikel Urdangarinek eskainitako hitzaldia. Gizartean errotutako hainbat ideiei buruzko hausnarketa atsegin eta kritikoa, apirilaren 28an Lobiano kulturunean, 19:00etan.

IURRETA

- >> **Guraso eta hezitzaileentzako hitzaldiak**, apirilaren 26 eta 27an, 18:30ean Kultur Etxean.

IKASTAROK

BERRIZ

- >> **Doako ardo dastaketa ikastaroa** maiatzaren 10erarte, astelehenero, Kultur Etxean egingo da, 18:00etatik 20:00etara. Guztira, lau saio izango dira.

DURANGO

- >> **Kontserba begetalak eta mermelada egiten ikasteko ikastaroa**, apirilaren 28rarte, 18:00etatik 20:30-21:00etara. Izena emateko: Berbaro elkartera 946201918 telefonora deitu. Plaza mugatuak; 16 lagunentzako lekua dago.

ELORRIO

- >> **'Los fantasmas femeninos que me persiguen: La loca, la Bruja, La puta'** maiatzak 7, 8, 14, 15, 21 eta 22an, Emakume Eskolan. Izena emateko epea ikastaroa hasi baino bi egun lehenago amaituko da. Udaletxean eman behar da izena, bestela, postaz.

ERMUA

- >> **Gorputza eta erritmoari buruzko ikastaroa**, apirilaren 28an 19:00etan, Lobiano kulturunean. Izen-ematea Lobiano kulturunean edo 639 414 205 telefonora deituz.

- >> **Ogigintza eta pintxogintza**, apirilaren 29rarte. Izen-ematea Lobiano kulturunean edo 639 414 205 telefonora deituz.

IURRETA

- >> **Reforzamiento del suelo pélvico ikastaroa** (Suspertu Fisioterapeutas taldeko Ane Miren Oyarzabal eta Amaia Lasuen): maiatzaren 10etik aurrera, zazpi saiotan. Izena emateko 616 490 506 telefonoa.
- >> **'Arbol genealógico'** ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara, apirilaren 27an KZgunean.

IPUINAK

DURANGO

- >> **Ines Bengoa kontalariak kamishibai izeneko teknika japoniarra erabiltzen du ipuinak kontatzeko**. Umeen arretra erakartzeko duten koloretako laminak, apirilaren 24an, 12:00etan, Liburutegian.

ERMUA

- >> **Irakurketa Kluba** 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat apirilaren 24an, 11:00etan, Lobiano kulturunean.

IURRETA

- >> **Haurren Irakurketa Kluba** apirilaren 27an herri-liburutegian; 17:00-17:45 (8-10 urte) 'Norak suhiltzaile izan nahi du' Arantza Iturberen eskutik; 18:00-18:45 (11-12 urte) 'Begi niniaren poemak' Juan Kruz Igerabideren emanaldia.

JAIK

ABADIÑO

- >> **San Prudentzio jaiak Traña-Matienan. Apirilaren 24an** 10:00etan, eskola arteko benjamin mailako aretoko futbol partida: Traña-Matiena H.E. B- Nevers B. 11:30ean Saskibalo partida eskoletan: Traña-Matiena A Traña-Matiena B. 15:30ean aretoko futbol txapelketa eskoletan Abadiño iratxoak antolatuta. **Apirilaren 28an San Prudentzio Eguna**. 11:00etan meza nagusia, 11:30ean Umeen kalejira Goloka taldeagaz. 11:30ean Umeendako jolastokia Traña plazan, eurria bada frontoian. 14:00 jubilatuen bazkaria. 15:30ean umeendako jolastokia Traña Plazan eurria bada frontoian. 16:00etan Afrikako orrazkera tailerrak eskoletako gimnasioan. 16:30ean umeendako margo txapelketa Traña plazan. 18:00etan umeen pirata jaialdia Traña plazan. 18:30ean Txokolatada Traña plazan.



IURRETA

- >> **Oromiño San Marko Jaiak. Apirilaren 23an**, gauean, 'April Fest' garagardo festa. Mozorro afaria. Musika, dantza eta giro aparta. **Apirilaren 24an**, eguerdian, Donien Atxa jasotzea, eta ondoren parte-hartzaileentzat makailau errea emango da. 17:00etan briska txapelketa. 17:30ean ume dantzak eta ume jolasak Kimuak taldeak antolatuta. Iluntzean, tortila txapelketa eta erromeria Luhartz taldeagaz. Afalostean erromeriaren jarraipena. Gauerdin inguruan, txarri harrapaketa. Goizaldean txokolatada. **Apirilaren 25ean, San Marko Eguna**, goizean kalejira. 11:00etan Meza. Ondoren, lurretako Mikel Deuna dantza taldea. Eguerdian, igel txapelketa. Jarraian, herri-bazkaria, paella erraldoia. Egunean zehar, trikitalariak egongo dira. 18:00etan asto-probak.

LITERATURA

BERRIZ

- >> **'On-off'** liburuaren aurkezpen musikatua, Yolanda Arrieta idazleak, Juantxo Zeberio apirilaren 23an, 22:00etan, Kultur Etxean.

apirileko agenda

Apirilak 23-27-30 • Herri Biblioteka
23an, 20:00 Liburuaren eguna. "OFF-ON liburuaren aurkezpen musikatua"
27an, Haurren irakurketa kluba. 17:00-17:45 8-10 urte / 18:00-18:45 11-12 urte
30ean, 17:30-18:30 Haurtxoen irakurketa Kluba. 3-6 urte

Apirilak 23-24-25-30 • Oromiño San Marko jaiak
23an, Gauean, "April Fest" Garagardo festa. Mozorro afaria. Musika, dantza eta giro aparta
24an, eguerdian -donien Atxa jasotzea. 17:00 Briska txapelketa. 17:30 Ume dantzak eta ume jolasak. Iluntzean tortilla txapelketa eta erromeria. Txarri harrapaketa eta txokolatada
25ean, 11:00 Meza. Iurretako dantza taldea. Eguerdian igel txapelketa. Herri bazkaria, paella.
Trikitalariak. 18:00 Asto probak. Errifaren zozketa
30ean, 21:00 Afaria. Ondoren Durangaldeko Bertsolari Txapelketaren 2. kanporaketa

Apirilak 24-25 • Txirrindulari elkarteak
09:00 Ibilbide ezberdinak (85-104km)

Apirilak 26-27 • Guraso eta hezitzaileentzako hitzaldiak
26an eta 27an, 18:30 Hizlaria: Juan Carlos Alonso (Psikologoa), Kultur Etxean

Apirilak 27 • KZ gunea
16:00-18:00 "Arbol genealógico" ikastaroa

Apirilak 30 • Ikima tailerrak
17:30 "Ibilbide literarioak"

Apirilak 30 • Musika emanaldia
19:00 Uannah "Euskal Balkan Folk", Ibarretxe kultur etxean

IURRETAKO UDALA

ERMUA

» **XVI. Ermua Hiria literatur saria.** Ohiko narratiba eta olerki modalitateak ditu. Lanak maiatzaren 7a bitartean aurkeztu daitezke. Informazio gehiago Liburutegian.

IURRETA

» **'On-off'** liburuaren aurkezpen musikatua, Yolanda Arrieta eta Juantxo Zeberioaren eskutik, apirilaren 23an, 20:00etan, Herri Liburutegian.



LEHIAKETA

BERRIZ

» **Kaleko Pintura Lehiaketa** apirilaren 24an egingo da, 16 urtetik gorako edonork parte hartu dezake. Goiz bateko lehiaketa izaten da. Irabazlearen berri egunean bertan 18:00etan jakitera emango du epaimahaiak, Kultur Etxean.

» **Jaietako Kartel Lehiaketa** San Pedro eta Santa Isabel jaietarako irudia aukeratzeko lehiaketa. Lanak maiatzaren 14rako Kultur Etxean.



» **2010-2011 Eskola Agenda.** Eskola agendaren aurreko eta atzeko azalak diseinatzeko lehiaketa. Berrizko ikastetxean matrikulatuta dauden 12 eta 16 urte bitarteko gazteek parte hartu dezakete. Lanak banaka zein taldeka aurkeztu daitezke, maiatzaren 14rako.

» **I. Mural Lehiaketa** Berrizburu futbol-zelaiaren aurrean dagoen frontoiko horman irudi bat egiteko. Artistek maiatzaren 14rako Udaletxean zein Kultur Etxean zirriborroa aurkeztu beharko dute.

ZORNOTZA

» **'Zugan ni'** 14 eta 18 urte bitarteko gazteek parte hartzen duten antzerki lehiaketa, apirilaren 28an 20:00etan, izango da Zornotza Aretoan.

MUSIKA

DURANGO

» **UEK, The Wet Band eta Krausk** apirilaren 23an, 22:00etan, Plateruenean.

» **Aborted, The Red Chord eta Rotten Sound**, apirilaren 25ean 20:00etan, Plateruenean.

ERMUA

» **Musergoren kontzertua**, txelo musikariak emanaldia eskainiko du apirilaren 23an, 22:15ean, Lobiano Kulturgunean.



» **Ermua kantuan** hilaren 24an, 12:30ean, Orbe Kardinalaren plazan.

ZALDIBAR

» **Elkartasun kontzertua Zaldibarko Gaztetxean**, apirilaren 23an 23:00etan: Pixontxis, Ghetto eta olerkiak.

ZORNOTZA

» **Seiren** apirilaren 24an, 22:00etan, Zornotza Aretoan.

» **Kontzertu didaktikoa** apirilaren 28an, 19:00etan, Zelaieta zentroan.

ZINEKLUBA

ERMUA

» **'Yo también'** apirilaren 29an, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano Kultur Gunean.



Apirilaren 25an, 19:00etan

EL IDIOTA EN VERSALLES

Komedia garratz eta dibertigarri honek artearen eta boterearen arteko harremanaz hitz egiten digu. Istorioan Molière artistak bere lanari ematen dio garrantzia handiago erregearen gustu eta kapritxoei baino. Lully musikariak, berriz, markatutako bidea jarraitzen du. Bost mende atzera eramaten gaitu Arden konpainiak antzeztan honekin, baina estetika klasikoa erabiliz, gaur egungo gai sozialak aztertzen ditu; adierazpen askatasuna, homosexualitatea edo itxurakeria. Gaur egungo komedia klasikoa Drangon, Elorrioren eta Zornotzan ikusgai.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Alicia en el país de las maravillas 3D
Zuzendaria: Tim Burton
barikua 23: 22:00
zapateria 24: 16:45/19:30
22:30
domeka 25: 16:45/19:30
astelehena 26: 19:00
martitzena 27: 20:00



Simon Boccanegra

Opera en directo digital satélite
osteguna 29: 20:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Ander
Zuzendaria: Roberto Castón
zapateria 24: 22:30
domeka 25: 20:00
astelehena 26: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Acantilado rojo
Zuzendaria: John Woo.
domeka 25: 20:00
astelehena 26: 20:00



Mugaldekoak

Zuzendaritza: Miren Gabilondo, Fernando Bernués.
ostirala 23: 20:00 (Sarrera doan)

BOTIKAK

Barikua, 23
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
Zapateria, 24
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga (Berrío Otxoa 6 - Elorrio)
• Sanroma/ Sagastizabal/ De Diego/ Balenciaga/ Unamunzaga/ Gaztelumendi/ Campillo
• Irigoien* (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)*
Domeka, 25
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Astelehena, 26
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Martitzena, 27
09:00-09:00
Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Eguaztena, 28
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
Eguena, 29
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112

GARRAIOAK

Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466

TAXIAK

Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
lurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa ...94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

UDALTAINGOAK

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

EGURALDIA

19° BARIKUA ☁
Giroa egonkortuz joango da eta aroak hobera egingo du. Goizean zehar oraindik punturen batean busti dezake. Arratsaldean hodeitza saretuz joango da eta urdingune zabalak nagusituz joango dira.

24° ZAPATUA ☁
Eguzkiak gozatzeko aukera izango dugu. Egunsentiko behelainoa altxatu ostean, zeruan urdinu egingo da. Arratsaldean bero-hodeiak garatuz joango dira. Haizea ahul eta norabide finkorik barik ibiliko da.

22° DOMEKA ☁

26° ASTELEHENA ☀

26° MARTITZENA ☀

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak



NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelúkerianukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96



- Jon Sopelana
- iunik ile-apaindegia dauka Durangon

Edertasuna eta ongizatea

Iunik ileapaindegian, edertasunaren topagune izateaz gainera, ongizatea ere eskaintzen dute, eta filosofia hori jarraitzen dute produktuak aukeratzekoan.

Zer produktugaz egiten duzue behar?

Aveda etxeko txanpu, tinte, suabizataileak... erabiltzen ditugu, kalitate handikoak izateaz gainera, ile-apaindegiko filosofiagaz bat egiten du-eta. Avedak iraunkortasunaren alde egiten du, ingurugiroagazko erantzukizuna eta bidezko merkataritza bultzatuz. Gainera, hainbat kanpaina egiten ditu, apirilean, esaterako, ur edangarriaren alde dihardute: light kandelak 15 euroren truk. Jasotako dirua Haitin ur edangarria bultzatzeko proiektuetara bideratuko da, eta Haitiko lurrikararen kaltetuentzat. Bestalde, hilean bitan trikologoak, ilearen medikuak, izaten ditugu ileko arazoak doan diagnostikatzen dituztenak.

Ile-apaindegian ongizatea bultzatzeko filosofiagaz diharduzue...

Bai. Ongizate erritualak egiten ditugu bezeroak esperientzia aparta eta eksklusiboa izateko, horretarako te organikoa eskaini edo estresaren kontrako masajea egiten dugu.

Zer tendentzia jarraitzen duzue mozketetan?

Tendentzia ingelesak jarraitzen ditugu, eta modernitatea mozketan eta koloretan, horrela irudi pertsonalizatua lortuz.



ZUTOIA
ileapaindegia

- Tratamendu kapilara
- Estentsioak
- Unisex
- Solarium bertikala

ORDUTEGIAK: asteartea-barikua: 9:00-19:00 • zapatua 7:30-14:30
Ambrosio Meabe, 2 • Tel.: 94 621 82 18



iunik
ileapaindegia

asteleheneetik
asteazkenea
10:00-21:00

osteguna
eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

Estetika Zentroak



Parafarmazia Dietetika
Amala

- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Antso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 96



Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- MANIKURA • PEDIKURA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izerrondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ªA-1ºC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017



Ana Camarero
• apaindegia •

LASER
FOTODEPILAZIO
MEDIKU-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

KIROLAK >



Argazkia: maiderunda.com

“Txapelketara ez naiz sasoi betean heldu”

Maider Unda oletarrak lehendik ere oparozuen palmaresa loditu zuen joan zen asteburuan. Borroka Libreko Europako Txapelketan brontzezko domina irabazi zuen.

Emaitzagaz gustura dagoen arren, txapelketak ez duela sasoi betean harrapatu aitortu du: “Denboraldiaren hasieran nagoenez, ez nau punturik onenean harrapatu txapelketak.

Nire urteroko hitzordu nagusia Munduko Txapelketa izaten da, eta prestaketa hara begira egiten dut”. Aurten irailean izango da Munduko Txapelketa Moskun, eta sasoi betean ordurako egotea itxaroten du.

Azerbaijango Bakú herrian jokatu zen Europako Txapelketan gogotik behar egin behar izan zuen domina irabazteko. Lehenengo borrokaldian Maria

Luiza Vryoni menderatu zuen, “nahikoa erraz”, bere esanetan, txapelketetako lehenengo borrokaldian izan ohi duten tentsioa gaindituz. Bigarrenean Ekaterina Bukina errusiarra izan zuen aurrez aurre, eta galdu egin zuen: “Bera ni baino gehixago dela uste dut, eta gainera nik ez nuen neurerik eman”.

Bukina finalera heldu zenez, bigarren aukera zabaldu zion

Iraileko Munduko Txapelketari begira bideratu du prestakuntza

oletarrari. Dina Ivanova Azerbaijango borrokalaria kanporatu zuen lehenengo: “Zaleek asko animatu zuten etxeko borrokalaria, eta baneukan beldur apur bat, baina irabaztea lortu nuen”.

Brontzerako bidean Marina Gastl austriarra izan zuen azkeneko traba. Aurrekarietako borrokaldi estua iragartzen zuten: Munduko Txapelketan Undak irabazi zion, baina aurten Suediako torneo batean austriarra nagusitu zitzaion. Tentsio handiko borrokaldian Undak berea eman eta merituzko domina irabazi zuen.

2008an Joko Olinpikoetan diploma olinpikoa irabazi zuen eta iazko Munduko Txapelketan brontzea jantzi zuen: “Nire sasoirik onenean nagoela uste dut. Luzaroan egindako lanaren fruituak jasotzen nabil 33 urte-gaz”, dio Undak. ■ J.D.

18 Emakumeen txirrindulari lasterketa

Emakumeen Bira Ziklismo taldeak Euskaldun Torneorako puntuagarria den proba antolatu du domekan. Iurretan, Elorrio eta Eubatik ibiliko dira txirrindulariak.

19 Eneko Ugarteri elkarrizketa

Filipinetako Santa Anan pilotaleku berria zabaldu du Master Jaik. Beste pilotari batzuekin batera, hara joan da Eneko Ugarte durangarra. Ez da lehenengoz joan paraje haietara.

Txirrindulariak harbidean ikusteko bigarren aukera etzi

lurretan hasiko den lasterketan Elorrioko harbidean ibiliko dira



Kadeteetan Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio taldeak parte hartuko du, besteak beste.

Iurretako Emakumeen Bira txirrindularitza elkarteak Euskaldun Torneorako puntuagarria den emakumeen txirrindulari lasterketa antolatu du etzi. Joan zen asteburuko lasterketan legez, etzi ere Elorrioko San Agustin auzoko harbidera eramango ditu ibilbideak.

Abiatzen lehenengoa nagusien mailako lasterketa izango da; 09:30ean irtengo dute Maspetik. Zelaieta barrutik igarota, Elorrioko harbidea probatu eta Eubarantz zuzenduko dira txirrindulariak. San Migel Dudeako ermitara igota eta Zornotzako Ibarra auzotik bira eginda lurretara itzuliko dira. Zirkuitu hori birritan egingo dute, guztira 88 kilometroko ibilbidea osatuz. Bizkaia-Durango taldeak osatuko du Durangaldeko taldeen ordezkariak.

Kulturalak ia ezinezko du play-offetara sailkatzea

Amorebietaren kontrako derbian husna berdinduta, Durangoko Kulturalak play-offetara sailkatzeko aukerarik gehienak galdu ditu. Beasainek ere berdindu egin zuen (2-2) Real Sociedad Bren kontra, eta hiru jardunaldiren faltan bost puntuko aldeari eusten dio.

Gainera, Elgoibar eta Gernika ere durangarren gainetik daude, Beasainek noiz huts egingo zain. Horri asteburu honetan Real Sociedad B lideraren kontra jokatu behar duela gaineratu behar zaio. Hala ere, Kulturala denboraldi oso ona osatzen ari da. ■J.D.

Kadete mailan Madril, Kantabria, Asturias eta Madrilgo taldeak datoz, besteak beste

Aurreratu dutenez, lehen aldiz Emakumeen Birako lasterketa bat Deban hasi eta amaituko da

Sarraldeak xake azkarreko txapelketa irabazi du

Euskadiko txapelkunorde izan ondoren, Bizkaiko txapelkun geratu da durangarra

Oraintsu Euskadiko Xake Txapelketako txapelkunorde geratu ondoren, joan zen asteburuan xake partida azkarren Bizkaiko txapelketa irabazi zuen Sestaon Rodrigo Sarralde durangarrak. Nahiz eta Bizkaia mailako maisuek ez zuten parte hartu txapelketan, maila altua izan zela azpimarratu dute antolatzaileek.

Aiparragia da, era berean, Jose Alfaro durangarrak lortutako zazpigarren postua (hasierako ranking-ean 20 postutik irtenda). Gainera, jokalaria honek arratsaldeko taldekako txapel-

Gazteek 66 kilometroko ibilbidea osatuko dute, eta nagusiak Elorriotik bueltan lurretatik pasatzen hasiko dute lasterketa. Kadeteen lasterketa eguerdian hasiko da, eta ibilbideari itzuli bat emango diote. Asturias, Kantabria, Madril eta Gaztela-Leongo taldeak etorriko dira, eta baliteke Portugalgo bat ere batzea. Eskualdetik talde bi ariko dira: Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio eta Beste Alde.

Emakumeen Bira

Bestalde, Emakumeen Birako antolatzaileek nobedade moduan aurreratu dutenez, Biraren datozen hiru urteetako aldietan, Deban hasi eta amaituko da lasterketa bat. 2011n Lekeitiora ere itzuliko da Bira, lau urtez ibilbidetik kanpora egon ondoren. ■J.D.

ketan Mario Gomez maisu gorenari irabaztea lortu zuen. Mario Gomez bi bider izan da Espainiako txapelkun eta xakeko hiru olimpiadatan egon da.

Taldekakoan ere ondo ibili ziren gure taldeak. Larrasolotak laugarren amaitu zuen, eta Zaldi Baltzak seigarren. ■J.D.

Bizkaiko maisuek parte hartu ez arren, maila handia izan zen

Agustin Alkorta
•Futbol entrenatzailea



Gure Toquero

Katedralean jokalaria bati sentimendu berezia baldin badiote, Toquerori diote. Ia denentzako ezezaguna zena, urtebetean ordezkazina izatera pasatu da. Zelako bueltak ematen dituen futbolak.

Toqueroren arrakasta aztertzen hasita, hiru arrazoi aipatuko nituzke beste guztien gainetik:

- Bere kasta: jokaldi guztiei ipintzen dien intentsitatea. Hori da bere ezaugarri printzipala. Borondatetsua, jokatzeko duen bakoitzean den-dena ematen duen sentzazioa uzten digu denoi. 'Gosea' pasatu duela nabaritzen da. Badakigu teknikoki ez dela beste mundukoa, baina konpentsatu egiten du jartzen dion gogoagaz. Bere hutsak desberdin ikusten dira eta barkamena irabazita dauka.

- Bere itxura: Caparrosek lehenengo bider ikusi zuenean galdetu egin ei zuen zenbat urte zituen ile gutxi-ko jokalaria horrek... 23 urte bakarrik zituela erantzun ziotenean, fitxatu egin behar zela esan zuen. Gaur egun, futbolaren munduan egoera batean gaude non, futbolista guztiak Cristiano Ronaldo, Beckham edo Ocio bezain 'guapoak' izan behar direla; gai eta ikuspegi horiek futboletik kanpo utzi behar ditugu zaleok.

- Bere ibilbidea: Alaveseko harrobian lehenengo taldean debutatu gabe, Lemoa, Sestao, Eibar eta Athletic, beheko taldeetatik pasatu gabe. Honek eztabaida sortu zuen bere sasoiari, baina orain argi dago ez dagoela zalantzarik: balio duenak balio du.

Athleticen merkatuan jokalaria asko dagoen seinalea da hori, eta abisua da 'katxorro'-entzako: inork ez du lehenengoa lehenengo taldean aukera bat edukitzeko. Eta kasta izanez gero, toki askotara heldu liteke.

Adituarentxokoa

Euskadigaz txapelkun gure errugbilariak

Euskadiko selekzioak emakumezkoen txapelketa autonomikoa irabazi du asteburuan. Hainbat durangar izan da bertan. Valentzia eta Andaluzia kanporatu eta finalean 15-10 menderatu zuten Madril.

Hauek izan ziren Durangotik joandakoak: Eider Alberdi, Ainara Lopez eta Reyes Goikoetxea jokalaria; Ricardo Aragon medikua; Ines Etxegibel eta Virginia Sagarduy hautatzaileak eta Ane Baonza ordezkaria. ■J.D.

Baqué taldeko Díez irabazle Lizarran

Daniel Díaz argentinarrak denboraldiko bigarren garaipena lortu du, 23 urtez azpiko mailan. José Ciordiaren oroi-meneko lasterketa jokatu zen asteburuan Lizarran, eta Cafés Baqué taldeko txirrindulariak irabazi zuen. Podiumera igo ziren hirurak bakarrik heldu ziren helmugara. Omar Fraile izan zen bigarren, eta Enrique Sanz hirugarren.

Orain Díaz laugarren dago 23 urtez azpiko Euskaldun Torneon. ■J.D.

Elorriaga bigarren dago Euskaldun Torneon

Cespa-Euskadi taldeko Unai Elorriaga bigarren kokatu da Euskaldun Torneon, Durango lasterketan hirugarren geratu ondoren. Paul Kneppersen irabazi zuen lasterketa, eta Euskaldun Torneon ere bera da lider berria, 53 puntugaz. Elorriagak 12 puntu gutxiago dauka. Cafés Baquéko Juan Sebastian Tamayo laugarren tokira jaitsi da, 38 puntugaz.

Asteburuan lasterketa bi daude: Balmasedakoa zapatuan eta Gipuzkoako Txapelketa domekan, Lazkaon. ■J.D.

Herri artekoan abantaila hartu dute gurek

Abadiño, lurreta, Atxondo eta Berrizek ederto hasi dute Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketa. Guztiek abantaila lortu dute bueltako lehiak jokatzeko.

Abadiñok Gallartaren kontrako hiru partidua irabazi zituen, eta hanka eta erdi bigarren fasean du. Lurretak eta Berrizek kanpoan jokatu zuten Lekeitio eta Bilbaoren kontra, hurrenez hurren, eta hirutik neurketa bi irabazi zituzten. Atxondok Lemoan jokatu zuen eta kadeteetan eta nagusietan nagusitu zen. ■J.D.

“Zestak filipinetan zeukan fama berreskuratuko dugula uste dut”



Filipinetan dabil zestalari durangarra.

Eneko Ugarte (1974, Kordoba) Durangon bizi izan da urte bi zituenetik, eta Filipinetako San Ana herrian dabil gaur egun MasterJaik inauguratu berri duen pilotalekuan jokatzeko. Frontoi berria zesta-puntarentzako bultzada garrantzitsua dela dio.

Ez da Filipinetara joan zaren lehenengo aldia.

Ez. Hirugarrenez nago eta beste aldibietako oroitzapen oso onak dauzkat. Lehenengoan debutatu egin nuen. Bigarreneko gomutak oraindik hobekak dira, arrazoi birengatik: lesio txar batetik nentorren eta berriz zestan ezin-go nuela jokatu esana zidaten, beraz, berriz jokatzeko kilika berezia eragin zidan; bestalde, nire emazte izango zena ezagutu nuen.

Zenbat denbora egongo zara?
Ahal dudan beste, gorputzak nahikoa dela esan arte, baina hori gertatu baino lehenago oportetean bueltatuko naiz; urte bete barru, gutxi gorabehera.

Oraintsu pilotaleku berria inuguratu duzue.
Bai, frontoia berri-berria da.

Lehenago Manilan jokatzeko genuen, eta zoritxarrez frontoi hura itxita dago. Orain Santa Ana gaude, Filipinaseko iparraldean. Egia esanda, frontoia oso polita geratu da. Ez da Manilan beste jende sartzen, baina oso lan polita egin dute, eta denboragaz gehiago estimatuko dugu, gaur egun frontoi berri bat zabaltzea oso gaitza delako. Mundu osoari eragiten dion krisiak horrelako pausak gehiago zaitzen ditu.

Zer osasun dauka zestak, gaur egun, Filipinetan?
Momentu honetan zestaren egoera nahiko ona da, baina lehen zeukan famara heltzeko oraindik bide luzea daukagu aurretik. Normala da hainbeste urte itxita egon eta gero. Jarriztaileak berriz erakartzea ez da hain erraza, baina bertako jarrai-

tzaileak apur bat ezagutzen ditut, eta seguru nago denbora gutxiren barruan lehenago zestak zeukan fama hori berreskuratuko dugula. Eskerrak eman gura dizkiot bai MasterJairi eta bai bere presidente Aitor Totorikaguenari eta berak hemen dituen kideei proiektu hau martxan jarri dutelako.

Pilotaleku berria bultzada garrantzitsua izan da.

Orain pausoka-pausoka joan behar dugu. Apurka, telebistaren laguntzaz (gauero ematen dute telebistatik azkeneko kiniela) jende guztiak jakingo du hemen gaudela berriro, eta oraingo honetan denbora askorako izango da.

“ Filipinetako zaleak sutsuak dira, eta euren pilotari kuttunak izaten dituzte ”

Hor zaudeten pilotariona da orain erantzukizuna.

Ez hemen gaudenona bakarrik; munduko pilotari guztiak daukagu erantzukizun hori. Ondo jakatu beharra daukagu, eta zaleak entretenitu behar ditugu, baina, nik behintzat, gustura hartzen dudana erantzukizuna da.

Zelakoak dira horko zaleak?

Hemengo zaleak oso sutsuak dira, ez dira isiltzen eta beti animatzen dabilta. Gainera, Euskal Herrian legez, hemen ere euren pilotari kuttunak dituzte, eta ez zaituzte ezergatik uzten, onerako zein txarrerako. Leku gutxitan moduan, ez bazaie gustatu zelan jokatu duzun kritikatu eta Euskadira bidaliko zaituzte, baina hurrengo egunean zugaz egongo dira berriro.

Bero eta hezetasun itzela ei dago. Igartzen duzu jokoan?

Egia esaten badizut, nik ez dut asko igartzen, ze gauzez jokatzeko

dugu eta, beraz, ez daukagu egunez izan ohi dugun bero eta hezetasun hori.

Zelakoa da horko egunean eguneko bizimodua?

Partidua daukadan egunetan goiza emazteagaz hondartzan lasai pasiatzeko baliatu dezaket. Erosketak egin, pelikula bat ikusi, errekaduak egin, albistegia ikusi... eta iluntzean frontoira joateko prestatzen naiz. Partidurik ez badaukat hondartzara joan beharrean korrika joaten naiz, eta gero etxean ariketa batzuk egiten ditut. Bazkalostean eguraldiaren eta gogoaren arabera bertako parajeak ezagutzera joaten gara. Baina ez pentsatu beti bidaiatzen gabiltzanik, etxean ere geratzen gara, lasai-lasai lagunekin kafetxoa hartzen kontu kontari.

Euskal Herrian erremontea estu dabil. Zelan ikusten duzu zesta?

Zer edo zer irakurri dut erremonteari buruz, eta triste da. Zorionez, zestaren egoera ez da hain larria; ez da bikaina, baina hain larria ere ez. Hor dabilta Aitor Totorika eta MasterJai luzaroz lanean, eta oraindik hor segitzen badute, gauzak ondo egiten dabilta seinale da. Lehenago esan dudana moduan, Filipinetan bide luzea daukagu zesta dagokion tokira eramateko. Euskadin berdin gertatzen da, eta niri gustatuko litzaidake euskal agintariak, Federazioko agintariak eta dagokien guztiak indarrak batuko baltuzte Euskal Herriko jokorik internazionalena bere tokian ipintzeko. Amaitzeko gorantziak eta besarkada bana eman gura dizkiet familiakoei eta lagunei: lasai egon, apurka estresa kentzen nabill! ■ J.D.

“ Euskal kirol nazioartekoena dagokion tokian jartzeko indarrak batu behar dira ”

Agenda

FUTBOLA OHOREZKO MAILA
Berriz - Somorrostro
Zapatuan, 17:30ean,
Berrizburun
LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Zaldia - Iurretako
Zapatuan, 17:00etan,
Solobarrian
BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)
Elorrio - Leioa
Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden

ARETO FUTBOLA OHOREZKO A MAILA
Sasikoa - Donostiako Zuzenbide
Domekan, 12:00etan,
Landako kiroldegian
OHOREZKO B MAILA

Elorrioko - Iturriondo
Zapatuan, 18:00etan,
Elorrioko kiroldegian
EUSKAL LIGA

Sasikoa - Alegria
Zapatuan, 19:15ean,
Landako kiroldegian
GOREN MAILA

Mallabia Bastida - Boskozaleak
Zapatuan, 17:30ean,
Zaldibarko kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA

Elorrioko B - Sumi Muguru
Domekan, 12:00etan,
Elorrioko kiroldegian
Abadiñoako Lagun - Bermeo

Domekan, 12:00etan,
Berrizburu
BIGARREN ERREGIONALA
Kurutziaga Ikastola B - Otxartabe

Domekan, 10:30ean,
Landako kiroldegian

Dantxari - Egartsuak
Domekan, 18:00etan, Landabide Heziketako Institutuan

Mendibeltz - Gu Lagunak
Zapatuan, 16:45ean,
Landako kiroldegian

EMAKUMEEN LIGA

Kurutziaga Ikastola - Artaromo

Zapatuan, 15:30ean,
Landako kiroldegian

SASKIBALOA LEHENENGO ERREGIONALA (igoera fasea)

Tabirako - Centro Salmantino

Zapatuan, 17:00etan,
Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA (Bizkaiko Kopa)

Tabirako - Paules

Zapatuan, 19:00etan,
Landako kiroldegian

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak	Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak	Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak
1- Real Sociedad B...68	1- Zornotza.....10 (+75)	1- Bera Bera ...25 (+394)
2- Portugalete.....65	2- Bidegintza.....10 (+82)	2- Ardoi23 (+452)
3- Amorebieta.....64	3- Cafés Aitona.....10 (+114)	3- Gernika23 (+371)
4- Beasain60	4- Ardoi9 (+24)	4- Cafés Aitona ...19 (+165)
5- Gernika.....58	5- Viajes Marfil8 (+36)	5- Las Gaunas ...18 (+104)
6- Elgoibar58	6- Padura.....7 (+10)	6- Abaroa15 (+105)
7- Kulturala.....55	7- Tabirako.....5 (-69)	7- Tabirako15 (+136)
8- Amurrio.....52	8- Arabako EHU4 (+1)	8- Deusto-Loiola .13 (+43)
9- Basconia.....51	9- Goierri Verkol.....4 (-69)	9- Obenasa13 (-131)
10- Zamudio50	10- Seky.es.....3 (-104)	10- Elelalde12 (-87)
11- Laudio.....45		11- Getxo11 (-140)
12- Arenas45		12- Atletico SN10 (-114)
13- Santurtzi44		13- Arabako EHU 9 (-38)
14- Zalla.....43		14- Artieda5 (-247)
		15- Irlandesas3 (-522)
		16- San Ignacio2 (-491)



Durangoko Kulturalak 50 gol sartu eta 38 jaso ditu aurtengo denboraldian

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

Saldu / Erosi
Errentan eman / Errentan hartu
Lan eskariak / Lan eskaintzak
Galdu / Aurkitu
Eman / Hartu

Eguazteneko 19:00ak arte
jasotako iragarkiak bariku
horretako alean
argitaratuko ditugu.
Beranduago jasotakoak
hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitetz, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org.
Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23
Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabilzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, trasteleku (komuna ateratzeko aukera dauka) eta ganbara. Eguzkitsua da eta 3 balkoi ditu. Iggogailua jartzeko dago. Berogailua eta leiho berriak dauka. Etxe guztiak kanpora ematen du. Telefonoa: 655 71 21 05

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altxariek, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birezkatuko lekua. Telefonoa: 667 882 338

Atxondo. Etxe ia berria salgai: sukaldea, 3 logela, egongela handia, komun bat eta balkoi handi bat. Oso eguzkitsua. Prezioa: 225.000 euro. Negoziagarria. Itxaso. Telefonoa: 648 28 53 59

Berriz. Berriz pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. Telefonoa: 647777392

Durango. Etxea salgai Telefonoa: 69666 00 58 kattalin4@hotmail.com

Durango. Pisu bat salgai Madalena auzoan. Guztiz berriztatua, duela 5 urte. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Oso eguzkitsua. Guztiz jantzia. Telefonoa: 655 709 659

Durango. Atiko bat salgai Durangoko alde zaharrean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua. Duela urtebete erabat berriztatua. Guztiz jantzia. Bizitzentzako moduan. Etorri ikustera! Ainara: 659 42 58 90.

Durango. Ondo zaindutako etxea salgai: sukaldea, 3 logela, saloia, 2 komun eta bi balkoi handi. (6. solairua). Garaje itxiarekin. Prezioa: 320.000 euro (negoziagarria) Telefonoa: 94 616 62 97

Elorrio. Pisu ederra salgai. Tel.: 639 020 581

Elorrio. Pisu eder bat salgai. Auzoa etorbidean. Telefonoa: 639 020 581

Elorrio. Pisu eder bat salgai Elorrian. Erreformatua, 124 m², gas naturaleko berogailua, sukalde ekipatua, egongela, 5 logela, 2 komun, jakitokia, 2 balkoi, garaje itxia. Derrigorrezko aukustea. Prezioa: 264.500 euro (44.000.000 pta). Telefonoa: 685 73 48 25

